
**INDARKERIA MATXISTAREN
BIKTIMEI ARRETA EMATEKO,
HAIEKIN ESKU HARTZEKO ETA
HAIEN BIDELAGUN ARITZEKO
III. UDAL PROTOKOLOA**
2022ko Otsaila



EGILEA
Vitoria-Gasteizko Udala (Berdintasuna Zerbitzua)

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
La Debacle S.L.

ARGITARATZE-DATA
2022ko martxo

AURKIBIDE

1. SARRERA	p. 5
2. ARRAZOIEN AZALPENA	p. 7
3. JARDUTEKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK	p. 9
4. XEDEAK	p. 10
5. LAN-PROZESUA ETA ERABILITAKO METODOLOGIA	p. 11
6. ESPARRU ARAUTZAILEA	p. 13
7. TERMINOLOGIA	p. 15
8. ARRETA EMATEKO, ESKU HARTZEKO ETA BIDELAGUN ARITZEKO III. PROTOKOLOA	p. 17
8.1. Inplikaturako sailak eta eginkizunak	p. 17
8.2. Esku-hartzearen fase bakoitzeko bidelaguntzaren ezaugarriak	p. 18
8.2.1. Harrerarako gakoak	p. 19
8.2.2. Banakako Arreta Plana egitean aintzat hartu behar diren gakoak	p. 20
8.2.3. Genero-indarkeria dagoela egiaztatzea	p. 21
8.3. Agente nagusiak, baliabideak eta prestazioak (fluxu-diagramak)	p. 23
8.4. Jarraipenerako egiturak	p. 41
8.5. Jarraipen eta ebaluazio-sistema	p. 42
9. ERANSKINAK	p. 43
1. eranskina. Indarkeria-kasu bat gizarte-zerbitzuen mendekoa ez den udal-baliabide edo -zerbitzu batetik sartzen denean. Kontuan hartu beharreko gakoak.	p. 44
2. eranskina. Genero-indarkeria dagoela administrazio-mailan egiaztatzekeo ereduak.	p. 48
3. eranskina. Txosten psikosozialaren ereduak.	p. 52
4. eranskina. Itzulpen eta interpretazio-zerbitzua eskatzeko inprimakia.	p. 57
5. eranskina. IRIS proiektuaren galdetegia, desgaitasuna dutenengan indarkeria-egoerak identifikatzekoak.	p. 60
6. eranskina. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitzarloan dituzten berezitasunak.	p. 72

**INDARKERIA MATXISTAREN
BIKTIMEI ARRETA EMATEKO,
HAIEKIN ESKU HARTZEKO ETA
HAIEN BIDELAGUN ARITZEKO
III. UDAL PROTOKOLOA
2022ko otsaila**

1. SARRERA

2010ean, **“Etxeko eta generoko indarkeriaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko, horiek bideratzeko eta horien jarraipena egiteko II. Udal Protokoloak”** (aurrerantzean, II. Protokoloa) bere ibilbidea hasi zuen, kolektiboaren arretan sortutako arreta-premiei erantzuteko jarraibideak eta prozedurak jasotze aldera.

Azken urteotan, indarkeria matxistaren errealitateak aurrera egin duenez, dokumentu berriak onetsi dira; hala nola, **“Gasteizko Udalak Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloa”**, 2022an eguneratu dena, edota **“Indarkeria matxistak Gasteizen utzi dituen emakume biktimen memoria berreskuratzeko proiektua”**, 2019an argitaratu zena, memoriaren erreparazioaren osteko prozesuari buruzko hausnarketa jasotzeko.

Indarkeria matxistaren errealitatea oraindik orain konplexua izateak eta araudi berriak onetsi izanak **II. Protokoloa** birplanteatzea eta berrikustea ekarri du, errealitate berrietara eta legerian izandako aldaketetara egokitu dadin. Gainera, **HARA! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planak (2018-2021)**, *Indarkeria matxistarik gabeko hiria* izeneko 4. ildoan, erakundeen eta erakundearteko koordinazioa hobetzeko helburuaren barruan, II. Protokoloa berrikusi, eguneratu eta egokitzeari zuzendutako jarduketa bat jasotzen du.

Hortaz, 2020ko irailean, barne-mailako prozesu parte-hartzaile bat abiatu genuen, baterako ebaluazioa egite asmoz, baina ez II. Protokoloan inplikaturik dauden sailekin bakarrik (Gizarte Politikako, Adinekoen eta Haurren Saila; Alkatetzaren eta Erakundeekiko Harremanen Saila, Berdintasunerako Zerbitzuaren bidez, eta Herritarren Segurtasunerako Saila, Udaltzaingoaren bidez), baita bestelako baliabide eta gizarte-eragileekin¹ edota politikariek ere.

¹ Aipatutako hiru sailetako udal-langileak ez ezik, honako hauek ere elkarriketatu genituen: Autodefentsa feministako talde egonkorra; Apdema – Adimen Desgaitasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkarte; Asexoria – Gazteentzako Sexu Aholkularitza; CEAR-Euskadi; Gizarterako elkarte; Goizargi Emakumeak elkarte; Ikusgune behatokia; Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

Esparru horretan, jarraipen-egitura bat sortu zen ebaluazio-prozesuaren hasieran, Batzorde Politikoak, Zuzendaritzen Batzordeak (gero, Batzorde Politiko-Teknikoan fusio-natu ziren) eta lantalde teknikoak osatzen dutena. Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, haiekin esku hartzeko eta haien bidelagun aritzeko III. Udal Protokoloak (aurre-rantzean, **III. Protokoloa**) baliabideak ordenatzen ditu, ibilbideak eguneratzen ditu, eta indarkeria matxistaren kasuei buruzko datuak eta informazioa jasotzeko hobekuntzak proposatzen ditu. Hala, bi kategoria hauetan multzokatzen ditu kasuak:

- ▶ **Indarkeria sexista.** Emakumeei ezartzen zaie, emakume izate hutsagatik; bada, bikotekideak edo bikotekide ohiak ezarri ohi du, baina barruan hartzen ditu, baita ere, sexu-erasoak eta/edo sexu-abusuak.
- ▶ **Indarkeria LGTBIfobikoa.** LGTBI pertsoneri ezartzen zaie, bikote barruan nahiz kanpoan, gorroto-delitu gisa.

Beraz, II. Protokoloa ebaluatu eta egokitzeko prozesuan planteatutako erronketako bat izan da, hain zuzen ere, prozeduran sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea; izan ere, orain artean, indarkeria matxista (etxekoa, genero barrukoa, LGTBIfobia...) jasan duten LGTBI pertsonak formalki aurreikusita dauden arreta-fluxu edo -ibilbideetatik kanpo geratu dira.

Lan hori errazteari begira, Gasteizko Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuak UPV/EHU-rekin lankidetzan eskainitako “Aniztasuna: *sexua, generoa, identitatea*” ikastaroak problematikan sakontzeko balio izan du (102 lagunek hartu zuten parte; horien artean, udaltzain ugari, gizarte-langileek eta udaleko gizarte-zerbitzuetan indarkeria matxistaren biktimei zuzeneko arreta ematen dieten pertsonak).

Udal-langile askok prestakuntza espezializatu hori jaso izanak udalaren arreta-baliabideak eta prozedurak hobetzeko aukera ematen du, indarkeria matxistaren biktimen beste profil bati arreta egokia emateari dagokionez: arreta eta bidelaguntza hobetu nahi badira, ezinbestekoa da indarkeria matxistaren arloan etengabe trebatzea.

Oro har, ebaluazio-prozesuari esker, indarkeria matxistaren arloko arreta-eremuak dituen premiak aurreikusi ahal izan ditugu; horrenbestez, aurretik zeuden arreta-fluxuak eguneratu eta arreta-fluxu berriak sortu badira ere, etorkizun hurbilean xehetasun handiagoz jorratu beharko diren alderdiak hauteman ditugu. Gasteizen indarkeria matxistaren aurrean ematen den arreta eta gauzatzen den koordinazioa hobetzea da asmoa, eta, ildo horretan, etengabe ebaluatu behar den tresna dinamikotzat hartzen dugu III. Protokoloa.

Berdintasunerako Zerbitzuak bere gain hartu ditu II. Protokoloaren ebaluazio-prozesua sustatu eta koordinatzeko eta III. Protokoloa egiteko lanak, Gizarte Politiketako Sailarekin eta Udaltzaingoarekin elkarlan etengabe arituta.

2. ARRAZOIEN AZALPENA

Europako Kontseiluaren hitzarmenak, emakumeen kontrako indarkeria eta etxe-ko indarkeria prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko denak (Istanbuleko Hitzarmena, 2011koa), emakumeen eta gizonen berdintasuna jotzen du emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko elementu giltzarritzat, eta emakumeen kontrako indarkeriaren egiturazko izaeraren oinarria genero-desberdinkeria dela zehazten du.

Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesak emateko neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak oso interpretazio-esparru mugatua dauka (bikotekideak edo bikotekide ohiak ezarritako indarkeria); hori dela-eta, Istanbuleko Hitzarmenak, zeina Espainiako Estatuak 2014an berretsi baitzuen, inflexio-puntu bat markatu zuen emakumeen kontrako indarkeria matxistaren bestelako moldeak jasotzean.

Emakumeen kontrako indarkeria emakumeen eta gizonen desberdinkeraren arazo sistemiko eta unibertsalaren barruan kokatu izana, halaber, **”Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bigarren aldiz aldatzeko legearen proiektuan” proposatzen diren erronken artean islatzen da.**

2018tik, arauzko beste tresna bat daukagu: **Genero Indarkeriaren kontrako Estatu Ituna.** Bertan, 2. eta 3. ardatzetan, honako hau jasotzen da: *“erakundeen erantzuna hobetzea, agintaritza eta organismo arduradunen arteko koordinazioaren eta sareko lanaren bidez” eta “emakume biktimei eta seme-alabei eskaintzen zaizkien laguntza eta babesak hobetzea”.*

Beste kontu batzuen artean, indarkeria horren eraginpean dauden adingabeei babesa eta laguntza emateko beharra ere aintzat hartu behar da garatuko diren neurrietan, halaxe jasotzen baita “Istanbuleko Hitzarmenaren” 26. artikuluan eta “Estatu Itunaren” 4. ardatzean. Adingabeak une oro aitortu behar dira genero-indarkeriaren biktime gisa, **“Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoaren”** arabera.

Beraz, azken hamarkadan garatu den arauzko testuingurua kontuan hartuta, udal-mailan esku hartzeko dauden tresnak eguneratu behar dira (tresna horien artean, II. Protokoloa dago), udalaren edozein baliabidetan edo gizarte-zerbitzutan artatzen diren indarkeria matxistaren kasuen aurrean erantzun egokia eman nahi bada.

Testuinguru horri, Gizarte Gaietako eta Adinekoen Sailak 2014an **Onartuz proiektua** egin izana gaineratu behar diogu; izan ere, proiektu horren bidez, **Onarpen** sortu zen, **genero-indarkeriaren biktimei laguntza espezifiko emateko unitatea**. Proiektu hark genero-indarkeriaren emakume biktimeentzako fluxuak eta arreta espezifiko antolatu zituen, II. Protokoloan jasotzen zena kualitatiboki osatuz. Hortaz, III. Protokoloan berritasun horiek jaso eta antolatu behar dira.

Aurrekoaz gainera, interseksionalitatea da aintzat hartutako beste faktore garrantzitsuetako bat, **“HARA! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planean”** jasotzen diren printzipioetako bat baita. Dokumentu horretan, honako hau jasotzen da: “Udalak arlo honetan duen eskumen-eremutik jorratzen da indarkeria matxista, eta jorratzeko modua ikuspegi-anitzekoa da, ikuspegi interseksionala, ikuspegi feminista eta giza eskubideen ikuspegia biltzen baititu”.

Interseksionalitatea txertatuta, aintzat hartu behar da pertsona batengan, indarkeria matxista jasatearekin batera, egiturazko hainbat diskriminazio-ardatz gurutzatu daitezkeela eta, hortaz, artatzen den kasu bakoitza bakarra dela. Ikuspegi horretatik abiatuta, arraza, klase soziala, etnia, adina eta aniztasun funtzionala diskriminazio-faktoreak dira, eta jasaten ari diren indarkeria matxistatik irtetea zailtzen diete emakumeei; hartara, garrantzitsua da udal-baliabideek errealitate ezberdinak kontuan hartzea, bidalguntza egokia izan dadin.

Azkenik, sarreran aipatu moduan, berdintasunerako politika publikoetan sexu- eta genero-aniztasuna sartzeari Gasteizko Udalak ezarritako beste helburuetako bat; ondorioz, II. Protokoloa ebaluatzeko prozesuan, faktore hori ere kontuan hartu da, edozein instantzia publikotara indarkeria matxista jasateagatik salaketa bat jartzera edo laguntza eskatzera bertaratzen diren LGTBI pertsonen ematen zaien arretan ere ikuspegi hori txerta dadin.

III. Protokoloak horregatik sartu du dimentsio hori, eta fluxuek aintzat hartzen dute problematika hori, edonolako indarkeria matxista mota jasaten duten LGTBI pertsonen begirako arreta espezializatua hobetzeko xedez.

3.- JARDUTEKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearteko II. Akordioak² jarduteko oinarrizko printzipio batzuk ezartzen ditu, bai koordinazioari begirakoak, bai autonomia-erkidego osoan osasun-, polizia-, justizia- eta gizarte-eremuetan biktimei ematen zaien arretari begirakoak. Bada, printzipio horiek tokiko protokolo orotan txertatu behar dira, eremuok prozesura sartu ahala.

Beraz, II. Akordioan nahiz Gasteizko Udalaren jarduketa-esparruan jasotzen dena kontuan hartuz, III. Protokoloak honako printzipio hauek jasotzen ditu:

- a. Laguntza oso eta pertsonalizatua.** Protokolo honetan hizpide dugun indarkeriaren biktima diren emakumeei, LGTBI pertsonen eta haien ardurapean dauden pertsonen ematen zaien arretak indarkeriaren ondoriozko premiak estaliko ditu, eta, horretarako, kasu bakoitzaren inguruabar pertsonal eta sozialen arabera egokienak diren zerbitzu eta prestazioetarako sarbidea emango zaie.
- b. Berdintasuna.** Biktima guztiei bermatuko zaie arreta, egoera zibila, sexu-joera, adina, sinesmenak edo ideologia eta maila ekonomikoa edozein izanda ere, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kideak badira ere edota desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenetakoa badute edo bestelako edozein kondizio pertsonal edo sozial badute ere.
- c. Prebentzioa.** Biktimen aurka indarkeria-egoerak errepikatzea saihesteko asmoz aplikatuko da jarraibideen multzoa, emakumeei, LGTBI pertsonen, beren ardurapeko haur eta nerabeei eta bizikidetzaren unitate bereko mendeko helduei dagokienez.
- d. Adingabeen interesaren defentsa.** Jarduketa-protokoloa aplikatzeko, biktimen ardurapeko adingabeak artatu eta babesteko behar diren neurriak hartuko dira, beren eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko xedez; nolana ere, haur eta nerabeen interes gorenari errespetatuko da.
- e. Ahalduntzea eta normalizazioa.** Kasu bakoitzerako egokiak diren neurriak antolatzeke orduan, indarkeriaren biktima diren emakume eta LGTBI pertsonen autonomia pertsonalari eta bizimodu normalizatuari bide ematen saiatuko gara.
- f. Eraginkortasuna eta arintasuna.** Protokolo honetan jasotzen diren jarraibideak aplikatzean, eraginkortasunez eta arintasunez jardun beharko dugu, berehala ekite aldera, egoera horiek berezkoa baitute presa.
- g. Gutxieneko biktimizazioa.** Protokoloan hizpide dugun indarkeria pairatu duten emakume eta LGTBI pertsonak bigarren aldiz biktimizatzea saihestuko dugu, ahalik eta gehien; horretarako, ahal bezainbeste murriztuko ditugu askotariko profesional eta erakundeen esku-hartzeen ondoriozko eragozpenak.

² III. Akordioa lantzen ari dira; onesten denean, aintzat hartuko da.

4. XEDEAK

Protokoloa eguneratuta, honako helburu hauek lortu nahi dira:

- ▶ Udaleko eta udalaz gaindiko baliabide eta zerbitzu guztien gaineko ikuspegi argia izatea, Udalak **indarkeria matxistaren arloan dituen kontzeptualizazioa eta kategorizazioa** aintzat hartuta.
- ▶ **II. Protokoloa berrikusi, eguneratu eta egokitzea**, gaur egungo legeria eta Gasteizko Udalaren programa- eta eskumen-esparrua kontuan hartuta.
 - » Indarkeria sexistaren aurreko esku-hartzeari buruzko informazioa antolatuz.
 - » Indarkeria LGTBIfobikoaren aurrean esku hartzeko prozedurak eta jarraibideak sartuz.
- ▶ Udalak indarkeria matxistari begira daukan arreta-sisteman **biktimen aitortza eta erreparaziorako eskubidea** sartzeko oinarriak txertatzea, hiriko baliabide eta kolektibo espezifikoak aintzat hartuta (adibidez, Goizargi, Emakumeen Etxea, Ikusgune...).
- ▶ **Informazioa biltzeko sistemak** eta erakundeen barrualdeko koordinazio-bideak aztertzea, behar besteko berme juridikoz gurutza daitezen datuak, Gasteizko Udalean artatzen diren indarkeria matxistaren kasuen **benetako irismena** zein den jakin ahal izate aldera.
- ▶ Protokoloa berrikusi, eguneratu eta egokitzeko **behar diren egiturak zehaztu, ezarri, koordinatu eta horien jarraipena** egitea.

5. LAN-PROZESUA ETA ERABILITAKO METODOLOGIA

Protokolo honen jardun-eremua tokikoa da (Gasteiz udalerrria), detekzioan, arretan, erreparazioan, prebentzioan, sentsibilizazioan, salaketan eta jendaurreko erantzun instituzionalean eskumenak dauzkaten sailen artean indarkeria matxistaren arloko arreta, esku-hartzea eta bidelaguntza antolatzekeo sailarteko protokoloa baita.

Bada, hiru sail hauek daude inplikaturik: Gizarte Politiketako, Adinekoen eta Haurren Saila, Herritarren Segurtasunerako Saila (Udaltzaingoaren bidez) eta Alkatetzaren eta Erakundeekiko Harremanen Saila (Berdintasunerako Zerbitzuaren bidez). Halere, aurreikusituz, protokolo hau erakundearteko koordinazioa (lehentasunez, Emakunde, EU-DEL eta AFarekiko koordinazioa) orientatzeko oinarria izango da, eta, halaber, oinarrizko premiak aztertzekeo balioko du, bai eta detekzioan nahiz arretan eskumenak dauzkaten beste erakunde batzuekiko koordinazioan (hala nola, Ertzaintza, Osakidetza, epaitegi eta Lanbiderekiko koordinazioan) aurrera egitekeo balio ere.

Laburbilduz, honako hauek izan dira III. Protokoloa antolatzekeo lan-prozesua eta erabilitako metodologia:

a. Ebaluazio-prozesua:

Barne-mailan diagnostiko/ebaluazio parte-hartzaile bat egitea erabaki genuen, indarkeria matxistaren biktimen arretan, deribazioan eta bidelaguntzan indarguneak eta ahulguneak hautematekeo. Horretarako, honako jarraipen-egitura hauek abiarazita hasi zen prozesua:

- » Alderdi politiko guztietako ordezkariak batzen dituen Batzorde Politikoa.
- » Inplikaturik hiru udal-sailetako zuzendaritzak eta buruzagitzak eta prozesua koordinatzen duen berdintasun-teknikaria biltzen dituen Zuzendaritzaren Batzordea³.
- » Lantalde teknikoa; prozesua gainbegiratu zuen, eta ekarpen teknikoak egin zituen fase bakoitzean.

II. Protokoloa ebaluatzekeo prozesuari esker, analisi kuantitatibo eta kualitatibo bat egin ahal izan genuen. Analisi horretan, batetik, datuak bildu ziren, eta, bestetik, elkarrizketak eta eztabaida-taldeak egin ziren.

b. Protokoloaren zehaztapena. Adostu denaren arabera, Protokoloa eguneratzeko orduan, zein inguruabarretan aktibatuko den eta kasu bakoitzean zer prozedura jarraituko den zehaztuko da: arretaren, esku-hartzearen eta bidelaguntzaren faseak; inplikaturik agentziak; lan-fluxuak; txostenen ereduak eta abar.

c. Prestakuntza: 2020an, prestakuntza-prozesu bat abiatu zen, teknikariengan eta politikariengan berdintasun-arloko gaitasunak garatze aldera. Teknikariei bideraturik prestakuntza “Jabetuz - Lineako ikastaroa (85 ordu), emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionali zuzendua” programan kokatu zen, eta “Aniztasuna: sexua, generoa, identitatea” ikastaroarekin (30 ordu) osatu zen.

³ Prozesuak aurrera egin ahala, Batzorde Politiko-Teknikoa sortzea erabaki genuen; bertan, III. Protokoloan inplikaturik dauden hiru sailetako zinegotzigoek eta zuzendaritzek hartzen dute parte.

d. Jarraipenaren eta ebaluazioaren zehaztapena: Protokoloan, prozesua ebaluatu eta kontrolatzeko gainbegiratze-mekanismoak jasotzen dira, helburu horretarako behar diren baliabideak (baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak) bermatzeko. Batzorde Politiko-Teknikoak eta lantalde tekniko egonkorak osatuko dute prozesua gainbegiratzeaz arduratuko den jarraipen-egitura.

Batzorde Politiko-Teknikoak indarkeria matxistaren inguruko gai guztiak jorratuko ditu. Lantalde teknikoak, berriz, indarkeria matxistaren biktimekiko esku-hartzea pixkaka hobetzeko behar diren ekintza zehatzak diseinatzen eta sustatzen jarraituko du.

Azkenik, adierazi beharra dago ebaluazio-prozesuan Berdintasunerako Zerbitzuko teknikari batek arreta-ibilbidean sartuta dauden hainbat udal-baliabide bisitatu dituela, begirada zabalagoa edukitzeko eta kasu bakoitzean dauden aukerak nahiz baliabideak ikuspegi feminista batetik detektatu ahal izateko.

6. ESPARRU ARAUTZAILEA

Atal honetan, indarkeria matxistaren eremuan aintzat hartu behar diren lege, arau eta plan esanguratsuenak zerrendatzen dira.

a) Emakumeen eta gizonen berdintasunari eta indarkeria sexistari buruzko erreferentziako arau-esparrua:

- » 29/2001 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean genero indarkeriaren biktimei laguntzeko dauden koordinazio-mekanismoei buruzkoa.
- » 27/2003 Legea, uztailaren 1ekoa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua arautzen duena.
- » 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- » 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxean tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeak harreran hartzeko baliabideak arautzen dituena.
- » Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko Legea eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua Araban eraginkorrak izateko koordinazio-protokoloa. 2007ko urtarrila
- » 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzkoa.
- » 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- » Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundearteko II. Akordioa. 2009
- » Europako Kontseiluaren hitzarmena, emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko dena; Istanbulen egin zen, 2011ko maiatzaren 11n, eta Espainiako Estatuak 2014an berretsi zuen.
- » 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena.
- » 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- » Indarkeria matxistak Gasteizen utzi dituen emakume biktimen memoria berreskuratzekeo proiektua. 2019
- » 12/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, genero-indarkeriaren biktimei babesa eta laguntza emateko premiazko neurriei buruzkoa.
- » Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Berdintasunaren aldeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarena; ebazpen honen bidez, genero-indarkeriaren egoerak egiaztatzeari buruzko 2021eko azaroaren 11ko Akordioa argitaratzen da, Berdintasunerako Biltzar Sektorialarena.

- » 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko (honako lege hau kontuan hartuta: 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa).
- » 2/2022 Lege Organikoa, martxoaren 21koa, genero-indarkeriaren biktima diren umezurtzen babesa hobetzeko.

b) Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko erreferentziako arau-esparrua:

- » Hara! Gasteizko Genero Berdintasunerako 2018-2021erako IV. Plana.
- » Gasteizko Udalak Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloa. 2022.
- » “Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa – Desirak Plazara”. 2017
- » LGTBI pertsonen berdintasunerako eta sexu-joerarengatik, genero-identitatearengatik, genero-adierazpenarengatik edo sexu-ezaugarriengatik ez diskriminatzeko Legearen aurreproiektuaren zirriborroa. 2021
- » 14/2012 Legea, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.
- » Lunacek txostena, EBk homofobiaren aurka eta sexu-joeragatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurka duen ibilbide-orriari buruzkoa (2014).
- » 17/19 Ebazpena, sexu-joerari eta genero-identitateari buruzkoa (2011).
- » Yogyakarta printzipioak: Giza eskubideen nazioarteko legeria sexu-joeraren eta genero-identitatearen arloan ezartzeari buruzko printzipioak (2006)

7. TERMINOLOGIA²

III. Udal Protokoloan, 2019an onetsitako eta GASTEIZKO UDALAK INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN JENDAURREKO ERANTZUNA EMATEKO PROTOKOLOAN⁴ jasotako terminologia erabiliko dugu:

► INDARKERIA MATXISTA

Hauxe da erabiliko dugun esparru-kontzeptua. Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da; genero-desberdinkerien adierazpenik larriena da, eta, batez ere, emakumeei eragiten die. Hala ere, sexu-orientazioagatik, identitateagatik edo genero-adierazpenagatik indarkeria eta diskriminazioa jasaten duten pertsona guztiek jaso dezakete indarkeria matxista. Beraz, sexu/genero/sexualitate eskema errepikatuko dela ziurtatzeko kontrol-mekanismoa da indarkeria matxista. Hots, espezifikotasunak espezifikotasun, emakumeei (indarkeria sexista) eta LGTBI herritarrei (indarkeria LGTBIfobikoa) egiten zaizkien erasoek sustrai berbera dute: matxismoa.

► INDARKERIA SEXISTA

Emakume izate hutsagatik eta emakumeek irudikatzen dutenagatik beren aurka berariaz erabiltzen diren indarkeria mota guztiak.

INDARKERIA SEXISTAK, MOTAK:

Genero-indarkeria: Indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien gizon ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan.

Sexu-indarkeria. Nahi ez diren sexu-jokaerak (sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpena).

Familia barruko indarkeria sexista: Edozein adineko neskatilek, nerabeek eta emakumeek senideen aldetik (aita, neba, aitona, osaba...) edo bizi-kidetza-unitatearen barruan jasaten dituzten kontrol-, eraso-, arbuio- eta bazterketa-modu askotarikoak aipatzeko erabiliko dugu izendapen hau.

► INDARKERIA LGTBIFOBIKOA

Pertsona guztiei eragiten die, eta presioa eraginez funtzionatzen du, sexualitate- nahiz genero-aniztasuna mugatze asmoz; LGTBI kolektiboaren barruan nahiz kanpoan ezar daiteke: transfobia, lesbofobia, homofobia, bifobia, intersexfobia.

Sexu-indarkeria: Nahi ez diren sexu-jokaerak (sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpena).

⁴ Terminologian gehiago sakontzeko, GASTEIZKO UDALAK INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN JENDAURREKO ERANTZUNA EMATEKO PROTOKOLOA begiratzea gomendatzen dugu.

Protokolo honetan, **GENERO BARRUKO INDARKERIA** ere aintzat hartzen da; hau da, sexu-genero bereko bikotekideak edo bikotekide ohiak ezarritako indarkeria.

Bestalde, **Udalaren gizarte-zerbitzuetan**, indarkeria matxistaren **problematika hauei ematen zaie arreta:**

Indarkeria sexista:

- » Emakumeari tratu txar fisikoa ematea.
- » Emakumeari tratu txar emozional/psikologikoa ematea.
- » Emakumeari tratu txar sexuala ematea.
- » Emakumeari tratu txar material/ekonomikoa ematea.
- » Bikotetik kanpo sexu-erasoa egitea.
- » Sexu- eta ekonomia-esplotazioa helburu duen emakumeen legez kanpoko salerosketa.
- » Segurtasun-indarrek baloratutako arrisku-egoeran egotea.
- » Bizikidetzaz berriro hastea, genero-indarkeria egonda.
- » Hainbat harreman sentimentaletan genero-indarkeria bizi izatea.
- » Emakumeari sexu-jazarpena eta larderia ezartzea lanean, erakundeetan edo beste toki batzuetan.
- » Ohorearen izenean egiten diren krimenak, emakumeen genitalen ebaketa eta emakumeei kalte egiten dieten bestelako praktika tradizionalak.
- » Familia barruko indarkeria. Profesionalak indarkeria sexista detekta dezake (seme adingabeak amari ezarritakoa, adibidez), esku-hartzea genero-ikuspegitik egiten bada.

Indarkeria LGTBIfobikoa edo LGTBI herritarrek jasaten dutena:

- » Indarkeria LGTBIfobikoa (funtsean etxekoa, baina baita etxetik kanpo gorroto-delitu gisa jazotakoa ere).
- » Genero barruko indarkeria.

8.- ARRETA EMATEKO, ESKU HARTZEKO ETA BIDELAGUN ARITZEKO III. PROTOKOLOA

8.1. INPLIKATUTAKO SAILAK ETA EGINKIZUNAK.

Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, haiekin esku hartzeko eta haien bidelagun aritzeko III. Udal Protokoloan, honako sail hauek daude inplikatura:

- ▶ **Gizarte Politiketako, Adinekoen eta Haurren Saila.** Hizpide dugun eremuan, sail honek honako eginkizun hauek dauzka:
 - » Indarkeria matxistaren biktimei banakako arreta psiko-sozio-hezitzailea eskaintzea, honako eginkizun hauekin: balorazioa, esku-hartzea, errekurtsoen kudeaketa eta izapidea, jarraipena eta ebaluazioa.
 - » Udal-zerbitzuen eta -baliabideen artean, baita beste administrazio eta/edo erakunde batzuekin itundutako zerbitzu espezializatuekin ere, koordinazio-mekanismoak ezartzea, indarkeria sexistaren nahiz indarkeria LGTBIfobikoaren kasuen jarraipen egokia egiteko.
 - » Indarkeria matxistaren aurrean emandako arretari eta esku-hartzeari buruzko estatistika-datuak ohikotasunez ematea Berdintasunerako Zerbitzuari, urtean behin, baina baita aparte ere, hala eskatzen bada; betiere, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusten diren eskakizunak betez.
 - » Saileko langileak eta kontratatutako zein itundutako enpresen bidez lan egiten duten profesionalak indarkeria matxistaren arloan (sexista nahiz LGTBIfobikoa) pres-takuntza jasotzen dutela ziurtatzea.
 - » Sailean erreferentziazko langileak izendatzea, protokolo honen koordinazio- eta jarraipen-lanak egin ditzaten; langile horiek parte hartuko dute xede horretarako sortzen den antolaketa-egituran.
- ▶ **Herritarren Segurtasunerako Saila – Udaltzaingoa.** Hizpide dugun eremuan, Udaltzaingoa honako **eginkizun** hauek dauzka (zehazki, Generoko eta Familiako Indarkeriaren Taldea indarkeria sexistaz eta genero barruko indarkeriaz arduratzen da, eta Salaketen Taldea LGTBIfobiagatiko gorroto-delituez):
 - » Partikularren deien bidez eta beste erakunde eta profesional batzuen deribazioetatik iristen diren kasuak detektatu eta artatzea.
 - » Egoitza judizialera bidaltzen diren atestatuak egin eta/edo berrikustea.
 - » Biktimei lagundu eta jarraipena egitea; ahal dela, biktimak birbiktimizatu gabe.
 - » Erasotzaileak kontrolatu eta haien jarraipena egitea.
 - » Arriskua baloratzea, irizpide objektiboetan oinarrituta.
 - » Babes-neurriak ezartzea.

- » Babes-aginduak kudeatu eta haien jarraipena egitea.
- » Beste profesional batzuekin koordinatu eta sareko lana sustatzea.
- » Udaltzaingoan erreferentziazko langileak izendatzea, protokolo honen koordinazio- eta jarraipen-lanak egin ditzaten; langile horiek parte hartuko dute xede horretarako sortzen den antolaketa-egituran.
- ▶ **Alkatetzaren eta Erakundeekiko Harremanen Saila.** Hizpide dugun eremuan, Berdintasunerako Zerbitzuak honako **eginkizun** hauek dauzka:
 - » Indarkeria matxistaren eremuan informatu, sentsibilizatu eta prestatzeko lanak egitea; Udala bera eta herritarrak oro har dira hartzaileak.
 - » Inplikaturik dauden sailen artean indarkeria matxistari buruzko sailarteko plan edo programa sektorialak sustatu eta koordinatzea.
 - » Berdintasunerako Zerbitzuak genero-berdintasunerako sustatzen dituen planetan jasotzen diren ekintzak hedatu eta aplikatzea.
 - » Inplikaturik dauden udal-zerbitzuei begira indarkeria matxistaren biktimen arre-tari, esku-hartzeari, bidelaguntzari, detekzioari eta erreparazioari buruzko pres-takuntza-ikastaroak antolatzea, ikuspegi intersektional batetik.
 - » Indarkeria sexista nahiz LGTBIfobikoaren prebentzioa, detekzioa, esku-hartzea eta erreparazioa hobetzeko teknika eta tresna berrien inguruan informatu eta aholkatzea.
 - » Protokolo honen jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemaren inguruan koordina-zio-lanak egitea.
 - » Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloa koor-dinatzea.

8.2. ESKU-HARTZEAREN FASE BAKOITZEKO BIDELAGUNTZAREN EZAUGARRIAK

Onartuz proiektuan⁵, indarkeria matxistaren biktimen arre-ta-, deribazio- eta bidela-guntza-prozesuaren faseak azaltzen dira; bada, faseok ezin hobeto aplikatu daitezke III. Protokoloan, eta indarkeria matxistarekin zerikusia duen edozein kasutara hedatu daitezke, indarkeria hori sexista zein LGTBIfobikoa izan.

- ▶ Udalaren gizarte-zerbitzuetan (OGZ, GLUZ, Onarpen, Haurren Atala...), erreferentziazko talde psikosozialak hartzen du esku.
- ▶ Udaltzaingoan, Generoko eta Familiako Indarkeriaren Taldea arduratzen da indarke-ria sexistaren kasuetan (genero-indarkeria, genero barruko indarkeria eta familiako indarkeria) esku hartu eta bidelagun aritzeaz. Etxetik edo bikote-harremanetik kanpo

⁵ Fase bakoitzari buruzko informazio kualitatibo gehiago izateko, irakurri Onartuz proiektuaren 14. orrialdetik aurrerakoa.

gertatzen diren eraso LGTBIfobikoekin lotutako gorroto-delituetan, Salaketen Taldea arduratzen da beharrezko bidelaguntzak egin eta koordinatzeaz.

- ▶ Berdintasunerako Zerbitzuak, arretan eskumenik ez daukanez, lehenengo fasean edo, are, 0 fasean (harrera) baino ez du parte hartzen, emakume bat (edo beste norbait) Berdintasunerako Zerbitzuaren bulegoetara edo Emakumeen Etxera informazio-eske bertaratzen denean. Protokolo honetan, kontuan hartzeko gako eta oinarrizko jarraibide batzuk jasotzen dira, gaian espezializatuta ez dauden gainerako udal-baliabide eta -zerbitzuetara heda daitezkeenak.

Edonola ere, honako hauek dira Onartuz prozesuan azaltzen diren fase orokorrak (hemen, aipatu besterik ez ditugu egingo):

- ▶ Detekzioa.
- ▶ Balorazioa eta diagnostikoa.
- ▶ Genero-indarkeriaren eta genero barruko indarkeriaren kasuetan:
 - » Haustura lantzea.
 - » Bereizketan eta bizitza autonomoranzko trantsizioan laguntzea (Onarpen eta beste agente giltzarri batzuen bidez; adibidez, Goizargi elkartearen eta Ikusgune behatokiaren bidez).
- ▶ Jarraipena egitea eta esku-hartzea ixtea.

Protokoloan inplikaturik dauden hiru sailek (Udalaren gizarte-zerbitzuek, Udaltzaingoak eta Berdintasunerako Zerbitzuak) kontuan hartu behar dituzte, aipatutako fase bakoitzean gomendatzen dena ez ezik, biktimari lehenengo **harrera ezin hobea** egiteko gakoak ere.

8.2.1. Harrerarako gakoak

Udalaren gizarte-zerbitzuetako profesionalak, hainbatetan, lehen harrera egin beharko diete udalaren gizarte-baliabide batera informazio eske, kezkaren bat partekatzea edo, besterik gabe, entzun ditzaten jotzen duten emakumeei edo LGTBI pertsoneri. Halaber, profesionalak, erabiltzaile batekin bestelako edozein arrazoi, izapide edo prestazio dela-eta esku hartzen ari dela, erabiltzaile hori indarkeria matxista jasaten ari dela hautesman dezake, edo horren susmoa izan.

Era berean gerta daiteke, baita ere, erabiltzailea uneren batean arreta-ibilbidean egon izana baina dagoeneko ez egotea, edo joan-etorrian ibiltzea, oso ohikoa baita; izan ere, indarkeriatik irteteko prozesuak ziklikoak dira, ez linealak. Hori dela-eta, harrera oso garrantzitsua da, eta garrantzitsua da sintoniaren-teknika erabiliz egitea.

Sintoniak esan nahi du biktimarekin emozionalki konektatu behar dela; funtsean, hari entzunez, min gehiago eragin gabe. Lehenik eta behin, entzun egin behar zaio (sintonian), eta, gero, amaieran, informazioa eman, bere historiara egokituz. Ez diogu arreta-ibilbide osoaren berri emango; zerk lagundu diezaiokeen aipatuko dugu: Udalaren gizarte-zerbitzuak, Hegoak, Goizargi, Ikusgune, eskola feministaren edo Emakumeen Etxearen jarduerak...

Sintonia prozesu bat da, eta bi zati dauzka⁶:

- ▶ Enpatiaz hasten da; hau da, biktimarekin “sentikorra izanez” eta haren sentsazio, premia edo sentimenduekin identifikatuz.
- ▶ Sentikortasun hori pertsonari komunikatu behar zaio.

Sintonian entzun ahal izateko:

- ▶ Garrantzitsua da antzeko egoera batean nola sentituko ginatekeen pentsatzea.
- ▶ Funtsezkoa da biktima biktima-estereotiporik aintzat hartu gabe ebaluatzea.
- ▶ Agertzen diren sentimenduak errespetatu behar dira: lotsa, mina, beldurra.
- ▶ Denbora eman behar zaio, elkarrizketa bere erritmora eraman dezan.
- ▶ Ez da egoera epaitu behar.
- ▶ Entzuteko ekintza ez da biktima-profila bilatzera bideratu behar; hots, ez da babes-gabetasuna eta/edo otzantasuna bilatu behar, indarkeria-egoeretan jarduketak konplexuak direla ulertu behar baita.

Sentikortasunez komunikatu ahal izateko:

- ▶ Erabiltzen ari garen hitzik gabeko komunikazioaz jakitun izan behar dugu; adibidez, ahotsaren tonua, hitzak... Toki horretan jende gehiago badago, gela bazter edo eroso batera joatea komeni da.
- ▶ Oso garrantzitsua da kontakizunaren gaineko iritziak hark erabilitako hitz berberekin ematea eta, beharrezkoa bada, birdefinitzea. Esate baterako, *“berak [gizonak] ez zekien zertan ari zen”* esaten badu, esaldia hitzez hitz har daiteke, ikerketarekin jarraitzeko: *“Zuk esan bezala, hark ez zekien zertan ari zen, eta zuk sentitzen zenuen...”*.
- ▶ Genero-indarkeriaren edo genero barruko indarkeriaren kasuetan, oso garrantzitsua da ulertaraztea salaketa segurtasun-mekanismo bat dela gehiago, bizitza konponduko dion tresna bat baino, eta beste laguntza-baliabide batzuen atea irekiko diola. Salaketa jartzea erabakitzen badu, profesionalak orientatu egingo du, eta Udaltzaingoaren Generoko eta Familiako Indarkeriaren Taldera lagundu ahalko dio; han, entzun egingo diote, eta ez dute salaketa jartzera behartuko, azkenean ez egitea erabakitzen badu.

8.2.2. Banakako Arreta Plana egitean aintzat hartu behar diren gakoak

Udalaren gizarte-zerbitzuetan artatutako indarkeria matxistaren kasu baten aurrean, talde psikosozialak biktimaren premia bereziak baloratuko ditu, Banakako Arreta Plana (BAP) egiteko xedez. Plan hori biktimarekin adostuko da, balorazio diagnostikoa egiteko balioko duten elkarrizketen bidez. Hilabete natural bat egongo da plana egin, negoziatu eta adosteko. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

⁶ 2. modulua. Harrera, Norma Vázquezek emandako Jabetuz ikastarokoa (egokitua).

- ▶ Jasandako indarkeria mota (genero-indarkeria, sexu-erasoa edo -abusua, genero barruko indarkeria, indarkeria LGTBIfobikoa eta abar).
- ▶ Genero-indarkeria edo genero barruko indarkeria bada, biktimak bere burua biktimatzat jotzen duen ala ez.
- ▶ Aurrekoarekin lotuta, bere burua biktimatzat jotzen badu, harremana hautsi nahi duen ala ez; hala badagokio, zer laguntza behar duen zehaztuko da.
- ▶ Seme-alaba adingaberik dagoen. *BALORA - Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna* aplikatuko da, adingabeak zuzenean edo zeharka indarkeriaren eraginpean egon daitezkeela susmatzen bada (adingabeek indarkeriazko gertaera ikusi badute, adingabeak indarkeria esplizitua jasan duela esaten badu edo amaren jarduketak adingabea babesgabetasun-egoeran jartzen badu, adibidez).
- ▶ Biktima desgaitasun-egoeran badago, IRIS proiektuko galdetegi pasatuko da. Europako Batzordearen DAPHNE egitasmoan (1997-1998) oinarrituta, indarkeriari eta desgaitasuna duten emakumeei buruzko METIS proiektua abiatu zen, eta, proiektu horren esparruan, galdetegi hori egin zuten, desgaitasuna duen emakume bat indarkeria jasaten ari ote den eta indarkeria hori zer motatakoa den identifikatzeko datuak bildu ahal izateari begira. (5. ERANSKINA)

(Genero-indarkeriaren edo genero barruko indarkeriaren) biktimari, Udaltzaingoa ardatzen badute, aurrekoaz gainera, arriskuaren balorazioa egingo diote, **bikotekidearen kontra indarkeria-arrisku larria dagoen aurreikusteko eskala** aplikatuz (Echeburúa, Amor, Loinaz eta Corral, 2010).

8.2.3. Genero-indarkeria dagoela egiaztatzea

Era berean, nabarmendu beharra dago Berdintasunaren aldeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzaren abenduaren 2ko Ebazpenak udaletako gizarte-zerbitzuei ahalmena ematen diela emakumeei baliabide eta prestazioetara iristea errazteko ziurtapenak idazteko (*Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Berdintasunaren aldeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarena; ebazpen honen bidez, genero-indarkeriaren egoerak egiaztatzeari buruzko 2021eko azaroaren 11ko Akordioa argitaratzen da, Berdintasunerako Biltzar Sektorialarena*).

Ebazpen horretan zehazten denez, “*halaber, eskudun Administrazio Publikoan genero-indarkeriaren biktimentzat dauden gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo harre-ra-zerbitzuen txosten bidez egiaztatu ahalko dira genero-indarkeriaren egoerak*”, biktimak titulu judizialik eduki beharrik gabe (adibidez, zigor-epairik edo babes-agindurik gabe).

Ebazpenean, administrazio-ziurtapena noiz eska daitekeen (berez, udaleko gizarte-zerbitzuek egin dezakete) eta ziurtapen hori emateko prozedura ezartzen dira⁷.

⁷ Ebazpenean adierazten denaren arabera, EAEn Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak egiaztatu ahalko du genero-indarkeriaren egoera. III. Protokoloa onetsi denean, sail hori prestazio zehatz bakoitza eskatzeko ziurtapen-eredu espezifikoak egiten ari zen. Hortaz, 2. eranskinean, III. Protokoloa idazteko unean zeuden ereduak baino ez dira jasotzen.

Ebazpen hori Euskal Autonomia Erkidegoan nola aplikatuko den zehaztu bitartean, udaletako gizarte-zerbitzuek Eusko Jaurlaritzaren dagokion sailari telematikoki eskatu ahalko diote ziurtapena, III. Protokoloaren 2. eranskineko ziurtapen-ereduak betez. Eredu ezberdinak daude, zer dirulaguntza eskatu nahi den: gizarteratzeko errenta aktiboa (GEA), bizitzeko gutxieneko errenta (BGE), diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE). Ziurtapen hori Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari bidaltzen zaio, baliozkotu dezan. Genero-indarkeriaren egoera Etxebiden egiaztatu behar bada, nahikoa izango da Etxebizitza Sailari dagokion txosten psikosoziala bidaltzea eta protokolo honen 6. eranskinetan zehazten den prozedura jarraitzea.

8.3. AGENTE NAGUSIAK, BALIABIDEAK ETA PRESTAZIOAK

a) Agente nagusiak

Honako hauek dira Gasteizko Udalean indarkeria matxistaren biktimei arreta, esku-hartzea eta bidelaguntza eskaintzen dizkieten udal-agente nagusiak:

► UDALAREN GIZARTE-ZERBITZUAK

Herritarrengandik hurbil dauden gizarte-zerbitzuen sarea: Gasteizen bizi diren herritarren autonomiari eta gizarte-ongizateari laguntzeko helburua dauka **(INFO +)**

» Oinarrizko gizarte-zerbitzuak

- » **Oinarrizko gizarte-zerbitzuak gizarte-etxeetan daude.** Hirian, 14 daude. Telefono-zenbakiak Udalaren webean aurki daitezke. **INFO +** Halaber, oinarrizko zer gizarte-zerbitzu dagokion jakiteko, Udalaren webean sar daiteke ohiko bizilekuaren helbidea. **INFO +**

Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sistemara berehala sartzeko oinarrizko unitatea dira (GLUZekin batera). Unitate horiek Gasteizen bizi diren herritarrei doako arreta eskaintzen dieten diziplina anitzeko taldeek osatzen dituzte, eta, besteak beste, honako hauek egiten dituzte: informazioa eta aholkua eman, baliabideak aplikatu, beste sail edo erakunde batzuetara bideratu, laguntza sozial edo psikosoziala eman, bidelagun aritu... Aurretiko hitzordua eskatu behar da, eta, indarkeria matxistaren kasuetan, arreta lehentasunez edo premiaz emango da (beharrezkoa bada). Ohiko ordutegia honako hau da: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Ordutegi horretatik kanpo, GLUZera jo daiteke.

- » **ONARPEN. Genero-indarkeriaren biktimei laguntza espezifikoa emateko unitatea**
onarpen@vitoria-gasteiz.org

Udalaren gizarte-zerbitzu hau erreferentea da bikote-harremana hautsi eta genero-indarkeriatik suspertzeko prozesuan dauden emakumeekin esku-hartze psiko-sozio-hezitzailea egiteari dagokionez, eta bitzita autonomia garatzen laguntzen die emakume horiei. Deribazioa txosten psikosozial baten bidez egiten da; nolana ere, bikote-harremana hautsi dela egiaztatu beharko da, eta genero-indarkeria modu integralean jorratzeko laguntza espezializatua eskatu.

» **GLUZ - Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua**
San Antonio, 10
Tel.: 945 13 44 44

Larrialdietan eta krisi-egoeretan berehalako harrera egiteko eta bidelagun aritzeko gizarte-zerbitzua da. Biktimak zuzenean jo dezake hona, edo gizarte-, polizia- eta justizia-zerbitzuen bidez. Zerbitzua urteko egun guztietan dago irekita, eta berehalako arreta ematen die Arabako Lurralde Historikoan gertatzen diren gizarte-larrialdiko egoerei.

Talde psikosozial bat dauka, eta aurrez aurreko arreta ematen du 08:00etatik 22:00etara eta, guardia kokatuaren bidez, 22:00etatik 08:00etara. Honako hau hartzen da gizarte-larrialdiko egoeratzat: kausa naturalak edo eragindakoak direla medio aurreikusi gabeko gertakari batek eragindako egoera, gaitasun pertsonalak, bizirauteko baliabideak eta bitartekoak, gizarteko eta familiako harremanak edo sareak eta segurtasuna eraginpean hartzen eta estutasunean jartzen dituenak; horren ondorioz, eraginpeko pertsonak babesgabetasun-egoera larrian geratzen direnez, larrialdiko lehen arreta behar dute, berehalakoa eta ezinbestekoa, egoera larriagotu ez dadin eta kalte handiagorik eragin ez dezan.

» **Haur, Nerabe eta Familien Zerbitzua.**
San Martingo bulego teknikoak. Teodoro Dublang Margolariaren
kalea 25, behe
Tel.: 945 16 13 79
infanciayfamilia@vitoria-gasteiz.org

Honako helburu hau dauka: “udalerriko haur eta nerabeen eskubideak zaintzea, beren ongizatea lortzeari begira, dituzten premiei erantzungo zaiela ziurtatuko duten prebentzio- eta babes-ekintzen bidez”. Babesgabetasun neurritsuko espedienteak jasotzen ditu, eta, beste eginkizun batzuen artean, espediente horien ebaluazioa, esku-hartzea eta jarraipena egiten ditu. Horretaz gain, haurren eta nerabeen kontrako sexu-abusuak susmatzen diren kasuak jasotzen ditu, eta ebaluazioa eta esku-hartze soziala egiten. Aldi berean, haurren prebentzio, sustapen eta parte-hartzearen eremuetan lan egiten du.

Haurren babesgabetasun neurritsua eta indarkeria matxista elkarrekin gertatzen badira, familia horiei arreta emateko erreferentziazko zerbitzua da.

► **UDALZAINGOA**

Agirrelanda, 8.

Larrialdietako telefono-zenbakia 092 - 945 15 80 00 (24 ordu)

proteccion5.policia@vitoria-gasteiz.org

» **Generoko eta Familiako Indarkeriaren Taldea**

Tel.: 945 161 635

proteccion5.policia@vitoria-gasteiz.org

(Astelehenetik igandera, 06:30etik 22:00etara)

Generoko, genero barruko eta familiako indarkeriaren biktimentzako arretan espezializatutako polizia-taldea da. Taldeak honako hauek egiten ditu:

- Generoko eta familiako indarkeriaren ondoriozko salaketak jaso, eta organo judizialetara nahiz Fiskaltzara atestatuak bidali.
- Arrisku-egoerak eta babes-neurriak ikertu, eta baloratu.
- Banakako aholkua eta laguntza eman.
- Babes-aginduak izapidetu, eta kontrolatu.
- Inplikaturako beste zerbitzuekin koordinatu.

Udalaren gizarte-zerbitzuekin lankidetzan estuan aritu, zerbitzuok indarkeria matxistaren biktima bati arreta ematen diotenean.

-
- » **Udaltzaingoaren Salaketen Taldea.** LGTBIfobiagatiko gorroto-deltuen ondoriozko salaketak eta atestatuak Udaltzaingoaren Salaketen Taldean kudeatu eta izapidetzen dira.

► **BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA**

Frai Zacarias kalea

Tel.: 945 16 13 45

Berdintasunerako Zerbitzua zerbitzura indarkeria matxistaren inguruko informazio eta aholku bila jotzen duten emakumeei eta bestelako pertsoneri harrera egitera mugatzen da. Teknikariek berdintasun-politika publikoak diseinatu, garatu eta ebaluatzen dituzte, baita prebentzio- eta sentsibilizazio-ekintzak ere. Halaber, aholku ematen diete gainerako udal-zerbitzu eta -sailei.

b) Baliabideak eta prestazioak

Indarkeria matxistaren biktimek honako prestazio hauek eskatzeko eta baliabide jakin batzuetara iristeko eskubidea daukate:

Baliabide edo prestazio mota	Izena	GI*	EI*	GBI*	SE*	ELF*
Psikologikoak	Hegoak	●			●	
	Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)	●	●	●	●	●
	Udalaren gizarte-zerbitzuak (OGZ, GLUZ, HFUZ)	●	●	●	●	●
	Onarpen	●				
	SATEVI - informazio eta Arreta Zerbitzu Telefonikoa	●			●	
Juridikoak	Hegoak	●			●	
	Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)	●	●	●	●	●
	Babes-agindua	●	●	●	●	●
	Ofizioko txanda eta Arabako Abokatuen Elkargoko Orientazio Juridikoko Zerbitzua	●	●			
	Dokumentazioaren erregularizazioa (CEAR, Biltzen, Gurutze Gorria...)	●	●	●	●	●
Egoitzak	Berehalakoan hartzeko zentroa (BHZ)	●				
	Egonaldi ertaineko egoitza-harrerako zentroa (CARME)	●				
	Udalaren harrera-pisuak	●	●			
	Adinekoentzako egoitza-baliabidea	●				
	Euskadiko Etxebizitza Zerbitzua. Etxebide	●				

Zenbait baliabidek aholkularitza psikologikoa eta juridikoa eskaintzen diete etxeko indarkeriaren biktima diren emakumei ere biktimarioa gizona den kasuetan.

Gizarte-gaiak	Orain programa	●	●	●		
	Loremaitea	●		●	●	●
	Oinarrizko estalduraren prestazioa (OEP)	●	●	●	●	●
	Goizargi	●				
	Emakumeen Etxea	●	●	●	●	●
	Ikusgune		●	●	●	●
	Berdindu		●	●	●	●
	Sexu-aholkularitza	●		●	●	●
	Jabekuntza Feministarako Eskola	●	●	●	●	●
	Bestelakoak (Emakunde...)	●			●	
Segurtasuna	Udaltzaingoa	●	●	●	●	●
	Ertzaintza	●	●	●	●	●
	Estatuko segurtasun-indarrak	●			●	
	Arriskuaren balorazioa	●				●
	Atenpro	●				
	Bortxa	●				
Ekonomia-gaiak	Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE)	●	●	●		
	Bizitzeko gutxieneko errenta (BGE)	●				
	Gizarterako errenta aktiboa (GEA)	●	●	●		
	Eusko Jaurlaritzaren ordainketa bakarra	●				
	Gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL)	●	●	●		
	Udalaren prestazio ekonomikoak	●	●	●		
	Bestelakoak. Gizarte-bonua	●				
Itzulpen eta Interpretazio Zerbitzua	Komunika – Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzua	●	●	●	●	●
Bestelakoak	Prestakuntza- eta lan-gaiak (ikastaroak, Lanbide)	●				
	Osasun-zerbitzuak	●	●	●	●	●

*GI: Genero-indarkeria / EI: Etxeko indarkeria / GBI: Genero barruko indarkeria / SE: Sexu-erasoak / ELF: Eraso LGTBIfobikoak

▶ **BALIABIDE PSIKOLOGIKO ETA JURIDIKOAK**

▶ **Hegoak – Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea**

Tel.: 945 151 015 / 945 124 892 (08:30etik 14:30era)

Aurretiko hitzordua zuzenean edo Udalaren gizarte-zerbitzuen bidez eska daiteke (bidalketa-txostenarekin):

- » **Indarkeria sexistaren biktima diren emakumeei arreta psikologikoa emateko zerbitzua.** Tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktimei arreta psikologikoa emateko programa. Arreta eta laguntza psikologikoak eta banakako nahiz taldeko tratamendu terapeutikoa eskaintzen ditu. Arreta doakoa da, eta, behar izanez gero, zuzeneko senideengana zabaltzen da.
- » **Indarkeria sexistaren biktima diren adingabeei arreta psikologikoa emateko zerbitzua.**
- » **Gizon erasotzaileei arreta psikologikoa emateko zerbitzua (Hegoak).** Epaitegiak deriba ditzake, kondena bete dezaten, neurri osagarri gisa, edo gizonek berek eska dezakete terapia, zigor-onurak lortzeko.
- » **Orientazio Juridikoko Zerbitzua.** Gizarte-gaiekin eta familia-zuzenbidea-rekin zerikusia daukaten gaien inguruko aholkularitza juridikoa eskaintzen du (hala nola, banaketa/dibortzioa, seme-alaben zaintza eta mantenua), baita tratu txarren, sexu-jazarpenaren eta sexu-erasoen egoeretan ere. Halaber, prozesu judizialen jarraipena egiten du.

▶ **Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)**

Justizia Jauregian dago

Tel.: 945 004 895 / 900 180 414 (doakoa)

Tel.: 945 029 079

Zigorak Betearazteko Zuzendaritzak delituen biktimen eskura jartzen dituen legelarien, gizarte-langileen eta psikologoaren diziplina anitzeko taldeek osatzen dute Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ). Zerbitzu psikojuridikoak indarkeria matxistaren inguruko laguntza eman lezake.

▶ **SATEVI. Etxeko indarkeriaren edo sexuagatiko indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko zerbitzua**

Tel.: 900 840 111

Doako zerbitzu autonomiko anonimo eta konfidentziala da (telefonoan, zenbakia eskuz ezabatu behar da deien erregistrotik), eta urteko 365 egunetan 24 orduz funtzionatzen du. Honako hauek eskaintzen ditu: Laguntza emozionala eta entzute aktiboa, informazioa eta banakako aholkularitza eta emakume biktimei arreta eta laguntza emateko zerbitzuekiko koordinazioa.

► **Babes-aginduak**

Udalaren gizarte-zerbitzuek eta Udaltzaingoak babes-aginduak eskatu ahal dizkiote epaitegiari, inprimaki bat bete eta bidalita.

► **Ofizioko txanda eta Arabako Abokatuen Elkargoko Orientazio Juridikoko Zerbitzua**

Tel.: 902 103 908 (ordainpekoa). **945 004 896** (doakoa)

Doako laguntza juridikoa eskubide bat da, eta, besteren artean, auzitan ibiltzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenei abokatu bat eta prokuradore bat izendatzea bermatzen du; halere, genero-indarkeriaren eta gizakien salerosketaren biktimek ez dute baliabide ekonomikoen gabezia egiaztatatu behar, doako laguntza juridikoa jasotzeko. Arabako Abokatuen Elkargoko Orientazio Juridikoko Zerbitzua eskaerak izapidetzen ditu. Abokatuen ofizioko txanda bat dago etxeko eta generoko indarkeriaren biktimentzat. Abokatu baten berehalako, aurrez aurreko eta doako laguntza eskaintzen du, bai salaketa jartzen eta/edo babes-agindu bat eskatzen laguntzeko, bai biktimari laguntzeko, babes-agindua eman dezaten edo epaiketa azkar baterako epaitegian agertu behar badu.

► **Dokumentazioaren erregularizazioa (CEAR, Biltzen, Gurutze Gorria)**

Migratzaileei, errefuxiatuei eta asilo-eskatzaileei laguntzeko entitate zehatzak daude. Asiloa indarkeria sexistarengatik edo indarkeria LGTBIfobikoarengatik eskatzen bada, CEAREk baliabide espezifikoak dauzka: psikologikoak, juridikoak, egoitza-erakoak...

► **EGOITZA-BALIABIDEAK**

► **Berehalakoan hartzeko zentroa (BHZ) (GOFE - Arabako Foru Aldundia)**

Berehalakoan, premiaz eta egonaldi laburrean hartzeko zentroa urteko egun guztietan 24 orduz dago irekita, eta genero-indarkeriaren eta etxeko tratatu txarren emakume biktimak hartzen ditu (baita haien seme-alabak eta ardurapean dauzkaten beselako senideak ere), berehala hartu ere, premiak baloratzeko behar den denboraz, baliabide egokienera bideratu aurretik. Zentroan, intentsitate handiko laguntza eskaintzen zaie, lehen harrerako esku-hartzeetan oinarritua, balorazioa, diagnostikoa, orientazioa eta premiazko ostatua barne hartuta. Esku-hartze horiek soziohezitzaileak eta psikosozialak dira, eta genero-ikuspegiarekin egiten dira, emakumeei ahalduztzen laguntzeko ikuspuntuarekin. Udalaren gizarte-zerbitzuek, premia detektatzen dutenean (besteak beste, biktimak berehala jotzeko moduko etxebizitzarik ez duenean, gizartean edo familian laguntzarik ez daukalako), esku-hartzearen partea idatzi behar dute, BHZri adierazteko genero-indarkeriaren biktima bat eta haren seme-alabak edo ardurapeko senideak berehala hartu behar direla.

► **Egonaldi ertaineko egoitza-harrerako zentroa (CARME) (GOFE - Arabako Foru Aldundia)**

Egonaldi ertaineko harrera-zentroa da, eta etxean tratatu txarrak jaso dituzten eta esku-hartze espezializatu integrala behar duten emakumeen eta haien zaintza-peko edo guraso-ahalaren mendeko seme-alaba adingabeen babes- eta ostatu-eskaerak artatzen ditu. Halaber, haurdun dauden edo ardurapean adingabeak dauzkaten, babesgabetasun- eta/edo bazterketa-arrisku larrian dauden, baliabide pertsonalik nahiz laguntza soziofamiliarrik ez duten eta bakarrik dauden emakumeei arreta ematen die, esku-hartze soziohezitzaile eta psikosozialetan oinarritutako laguntza intentsiboa behar badute.

► **Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisuak**

Etxeko indarkeriaren biktima diren, indarkeria hori gainditzeko prozesuan dauden eta babes-neurririk behar izan gabe aldi baterako ostatua behar duten emakume biktimei bideratuta daude. Aldi baterako dira. Egonaldia lau hilabetekoa izan daiteke gehienez ere; hala ere, salbuespenez, iraupen bereko luzapena lor daiteke. Erreferentziazko gizarte-zerbitzuaren manu teknikoaren bidez egiten da deribazioa. Une horretatik aurrera, ONARPEN bihurtzen da emakumeen erreferentziazko udal-baliabidea.

► **Adinekoentzako ostatu-baliabideak**

Udalaren gizarte-zerbitzuek genero-indarkeriaren biktima diren adineko emakumeak adinekoentzako ostatu batera joatea programatu dezakete.

► **Euskadiko Etxebizitza Zerbitzua. Etxebide**

Indarkeriaren biktima diren emakumeak Etxebiden inskriba daitezke, alokairuko etxebizitza baten eskatzaile gisa, genero-indarkeriaren biktima bezala. Barmazio orokorrean 4 puntu gehiago ematen zaizkie, eta gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzen eta/edo etxebizitza-eskaeran adierazitako udalerrietako batean erroldatuta egotetik salbuetsita daude. Horretarako, epaiaren bidez, urrutze-aginduaren bidez edo interesduna Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatu aurreko berehalako bi urteen barruan idatzitako gizarte-txostenaren bidez egiaztatu daiteke genero-indarkeriaren biktima dela. Bide elektronikoan nahiz Zuzenean bulegoetan inskriba daitezke Etxebiden. Betekizun orokorrak egiaztatzeko dokumentazio orokorra ez ezik, [Etxebideren webean](#) azaltzen diren dokumentu zehatz batzuk ere aurkeztu behar dituzte.

Bestalde, etxebizitza zuzenean esleitzea eska daiteke, dokumentu honen 6. eranskinean laburbiltzen diren betekizunak betez gero.

▶ GIZARTE-BALIABIDEAK

▶ **Orain programa. Haur, Nerabe eta Familien Zerbitzua**

945 16 13 79

infanciayfamilia@vitoria-gasteiz.org

Orain familiei aldi batez laguntzeko programa bat da, eta prestakuntza osatze-
ra, lan-merkatuan jarraitzea edo bertara sartzera, osasuna berreskuratzea eta
abarrera begirako jarduerak seme-alaben zaintzarekin uztartzeko zailtasunak
dauzkaten aitei eta amei zuzenduta dago, baldin eta bitarteko ekonomikorik
eta familiaren edo gizartearen laguntza nahikorik ez badaukate, adierazitako
jarduerak edo antzeko beste batzuk gauzatzen dituzten bitartean seme-alabei
arreta egokia bermatzeko. Hiriko beste familia batzuek ematen dute laguntza
hori. Bada, aurretik egokitzat jotako familiak dira, eta etxean bertan artatzen
dituzte egoera zehatzetan dauden haur eta nerabeen premiak, denboraldi ja-
kin batez, Haur, Nerabe eta Familien Zerbitzuko talde tekniko arduradunaren
laguntzarekin.

▶ **Loremaitea**

Aiala Kantzilerraren kalea 13

Tel.: 945 27 45 55

Biktimak epaitegira joan behar duenean, salaketaren kudeaketak egin be-
har dituen edota, besteak beste, abokatu bisitatu behar duenean eta se-
me-alabez arduratu daitekeen inor ez duenean seme-alaba adingabeei arre-
ta puntuala emateko zerbitzua da. Eskatera Udalaren gizarte-zerbitzuan edo
Udaltzaingoan izapidetzen da.

▶ **Oinarrizko estalduraren prestazioa**

Prestazio hau ez da diruzkoa, eta dendetan txartel ez-finantzario baten bidez
erosteko balio du. Prestazio honek elikadurako eta higieneko oinarrizko gas-
tuak estaltzen ditu, eta Udalaren gizarte-zerbitzuetan izapidetzen da.

▶ **Goizargi – Indarkeria matxistaren emakume biktimen eta bizirauleen Gasteizko elkarte**

Elkarte hau bidelagun aritzen da emakume biktimekin eta bizirauleekin,
modu informal batean, bizitzen ari diren prozesuaren unea edozein izanik ere.
Berdintasunerako Zerbitzuaren bidez edo posta elektronikoko bat bidalita jar
gaitzke haiekin harremanetan: **goizargiemakumeak@gmail.com**

► **Emakumeen Etxea**

Etxanobe jauregia, Santa Maria kalea 11

Ahalduntze feministari (banakakoari nahiz kolektiboari) bide ematea eta, Gasteizko emakumeek eskubideak guztiz baliatu ahal izatea bermatzeari begira, gizartea eraldatzen laguntzea da Emakumeen Etxearen helburua. Gasteizko Udalaren berdintasunerako Zerbitzuak kudeatzen du Etxea, aldi batez. Jabetze Feministarako Eskolaren jarduerak hartzen ditu, baita hiriko kolektibo eta elkar-teen proposatzen dituzten prozesu eta egitasmo feministak ere. Gainera, Sorgineneak kudeatzen duen liburutegi feminista bat daukate, Eleen Ganbara:

» **Jabetze Feministarako Eskola.** Berdintasunerako Zerbitzuak kudeatzen du Jabetze Feministarako Eskola ([egitaraua](#) irailetik maiatzera bitartekoa da). Emakumeen Etxearen prestakuntza-arloko tresna da, eta, besteak beste, hitzaldiak, ikuskizunak eta proiektzioak, irakurle-klubak, ikastaroak eta lantegiak biltzen ditu, baita haur eta nerabeei begirako #FeminismoanItzel egitasmoa ere.

► **Ikusgune - Observatorio Municipal de la LGTBIfobia en Vitoria-Gasteiz**
C/ Pintorería, 23

Tel.: 633 309 653 / 945 282 246

info@ikusgune.eus

Behatokia Lumagorri - ZAT elkarteak kudeatzen du, Udalarekin itunduta, eta, hiriko LGTBIfobiari buruzko datuak biltzeaz gain, informazioa eta aholkularitza espezifikoak eskaintzen dizkie udal-baliabideetako profesionali. Ikusgunek, halaber, lanean edo esku hartzen ari direla orientatzen ditzake profesionalak, eta edozein baliabide edo zerbitzutara joaten lagundu diezaiolke biktimari.

► **Berdindu**

Ramiro Maeztu 3

Tel.: 945 02 90 79

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu publiko honek sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko informazioa eta arreta ematen ditu. LGTBI pertsonen zuzendutako arreta psikojuridikoa eskaintzen diete arreta hori eskatzen dutenei edo udal-baliabide batetik deribatutakoei.

- ▶ **Sexu-aholkularitza. Landatxo gizarte-etxea (Santa Maria 4)**
C/ Santa María, 4
Tel.: 945 16 15 83
asexoria@vitoria-gasteiz.org

Sexualitatearen inguruko aholkularitza ematen die 14 eta 30 urte bitarteko gazteei. Udal-zerbitzu hau doakoa da, eta, bertan, sexologiaren profesionalek (neska batek eta mutil batek) 14 eta 30 urte arteko gazteak orientatzen dituzte, zalantzak argitzen eta sexualitatearen inguruko informazio kontrastatua aurkitzen laguntzarekin batera. Udalaren gizarte-zerbitzuek harreman afektibo-sexualen inguruko aholkularitza espezifikoa behar duten pertsona edo familiak deribatu ditzakete Udalaren Gazteen Zerbitzuaren mendeko baliabide honetara. Sexu-aholkularitzak, halaber, adingabe erasotzaileekin esku hartzen du, neurri judizialak betetzeko.

▶ **BESTELAKO SEGURTASUN-BALIABIDEAK**

Gasteizko Udaltzaingoaz gainera, zeinak segurtasun-arloan erreferentziazko polizia-kidegoa izan behar baitu udal honen sailentzat, segurtasuneko baliabide hauek daude:

▶ **Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila – Ertzaintza**

Ertzaintza eta Udaltzaingoa lankidetzan aritzeko koordinazio eragileari begira, askotariko gertakarietarako itundu diren eta eskumen funtzional eta geografikoen titulartasuna eta baliabideak esleitzeko adostu diren hitzarmen eta protokoloak daude; hala nola, genero-indarkeriaren kasuak kudeatzeko lankidetzaren hitzarmena.

Oro har, salbuespen jakin batzuk kenduta, bi polizia-kidegoek kudeaketa partekatzen dute generoko eta etxeko indarkerien delituertarako, lesioen, tratuetarako, mehatxuen eta derrigortzeen delituertarako, sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituertarako, familia-harremanen kontrako delituertarako eta arriskuan edo mehatxatupean dauden biktimen edo pertsonen babeserako.

► **Estatuko segurtasun-indarrak – Polizia Nazionalaren Atzerritartasun Brigada**

Zenbaitetan, Udaltzaingoak Polizia Nazionalaren Atzerritartasun Zerbitzua-rekin koordinatu behar izaten du; izan ere, araudiak jasotzen duenez, egoera espezifikoa aintzat hartuko da, eta, beharrezkoa denean, *trataera bereizia emango zaie nazioarteko babes eskatzen edo jasotzen duten eta zaurgarritasun-egoeran daudenei (hala nola, adingabeei, bakarrik dauden adingabeei, desgaitasuna dutenei, adinekoei, haurdunei, adingabeak dauzkaten guraso bakarreko familiei, torturak, bortxaketak edo indarkeria psikologiko, fisiko edo sexualeko beste modu batzuk jasan dituztenei eta gizakien salerosketaren biktimei). Halaber, trataera espezifikoa emango zaie, beren ezaugarri pertsonalak direla-eta, Asilo Eskubidea eta Babes Subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legean aurreikusitako arrazoiren batengatik jazarri ahal izan dituztenei. Adibidez, indarkeria LGTBifobikoarengatik jazarri ahal izan dituztenei. Kasu horietan, babes subsidiarioaren estatutuan adierazitakoez bestelako arrazoi humanitarioak tarteko, nazioarteko babes-eskatzaillea Espainian egotea baimendu ahalko da, atzerritartasun- eta immigrazio-arloan indarrean den araudiak xedatzen dituen baldintzetan.*

► **Atenpro - GPSaren bidezko telelaguntza.** Mugikorraren/GPSaren bidezko telelaguntza-programa da, genero-indarkeriaren biktimei begirakoa

Doako zerbitzu honek mugikorraren bidez lokalizatzen ditu pertsonak, indarkeria jasateko arrisku-egoeren aurrean. Arreta-zentro bati konektatzen zaio eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan, biktima dagoen tokitik. Larrialdietako deietan, polizia berehala ekitea dakar. Eskatera Udalaren gizarte-zerbitzuetan izapidetzen da, Udaltzaingoak egindako arriskuaren balorazioa aurkeztuta.

► **BORTXA**

Ertzaintzaren polizia-etxeek genero-indarkeriaren biktimei eskaintzen dien baliabide teknologikoa da, eta pertsona horiek larrialdi-egoeretan polizia-unitateekin lotura zuzena edukitzeko helburua dauka. Telefonia mugikorreko terminal bat da, eta hala nahi duten biktimen eskura jartzen da, 12 orduko gehieneko epean. Bada, polizia-etxearekin zuzeneko konexioa egiteko aukera ematen du, baita SATEVIrekin harremanetan jartzekoa ere. Gaur egun, Bortxa APP formatuan hedatzen ari da, biktimen telefonoetan instalatzeko.

► PRESTAZIO EKONOMIKOAK

► **Diru-sarrerak bermatzeko errenta**

info+ webean

Lanbiden izapidetzen da, dagokion ziurtapena erakutsita (2. eranskina). Etxeko indarkeriaren biktimek (baita, beraz, genero barruko indarkeriaren biktimek ere) eta genero-indarkeriaren biktimek DSBE jaso dezakete. Kalkuluan, ez dira aintzat hartzen ez Eusko Jaurlaritzaren ordainketa bakarra, ez gizarteratzeko errenta aktiboa. Gainera, genero-indarkeriaren biktimek bestelako salbuespenak dauzkate DSBEren hartzaileak izateko betekizunetan:

- » Bizikidetzaren unitatea ez dute gutxienez urtebete lehenago osatu behar.
- » 18 eta 23 urteko pertsonak izan daitezke, urtebeteko errolda eta benetako bizilekua badituzte.
- » Salbuespenez, elikagai-pentsioa ez eskatzea onartuko da, Udalaren gizar-teratzeko batek pensioa ez eskatzea justifikatzeko txostena idazten badu. Oro har, eskatu egin beharko da.
- » Aldi baterako harrera-zentroetan sartuta dauden eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak salbuetsita daude.

► **Bizitzeko gutxienezko errenta.** Gizarte Segurantza

info+ webean

Baldintzak malguagoak dira genero-indarkeriaren biktima diren edo gizakien salerosketaren edo sexu-esplotazioaren biktima diren adin nagusiko emakumeentzat. Halaber, kontuan hartzen da genero-indarkeriaren biktimak izateagatik ohiko bizilekua utzi ote duten eta/edo banantzeko edo dibortziazeko izapidetak hasi ote dituzten. Prestaziorako eskubidea dute, modu iraunkorrean egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitario baten erabiltzaileak badira ere. Lanbideren bidez eska daiteke ([info+](#)), protokolo honen 2. eranskinean genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatzeko jasotzen den ziurtapena aurkeztuta.

► **Gizarteratzeko errenta aktiboa - GEA** (SEPE)

info+ webean

Generoko eta etxeko indarkerien biktimek generoko edo etxeko indarkeriaren biktima direla egiaztatu beharko dute (genero barruko indarkeria-kasuak ere sartzen dira), eskudun administrazioaren bidez, erasotzailearekin bizi direnean izan ezik, eta enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon beharko dute, baldin eta eskatzen diren betekizunak betetzen badituzte, 45 urte baino gehiago edukitzeko betekizuna eta hamabi hilabetez jarraian edo denbora gehiagoz langabetu gisa enplegu-eskatzailea izateko betekizuna kenduta (ez dituzte bi betekizun horiek bete behar). III. Protokoloaren 2. eranskinean, ziurtapen-errenda jasotzen da.

- ▶ **Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren emakume biktimei** ematen dizkien **laguntza ekonomikoak** (Zuzeneanen eskatzen dira)
info+ webean

Eusko Jaurlaritzak laguntza ekonomiko bat eskaintzen die genero-indarkeriaren biktimei, indarkeria bikotekideak edo bikotekide ohiak ezartzen duenean, tratu txarren egoeratik irten daitezen eta independentzia ekonomikoa lortzen nahiz gizarteratzen laguntzeko. Honako hauek dira laguntza jasotzeko betekizunak:

- » Erasotzailearekin edo ustezko erasotzailearekin bikote-harremana behin betiko amaitu izana.
- » Genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatzeko ziurtapen bat edukitzea (babes-agindua, zigor-epaia edo, salbuespenez, Fiskaltzaren txostena). Ziurtapenak indarrean egon beharko du eskaera egiten den unean, eta ez du urtebetetik gorako antzinasuna eduki behar indarraldia hasi zuenetik zenbatzen hasita.
- » Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta benetako bizilekua bertan edukitzea, 6 hilabetez jarraian gutxienez.
- » Langabezian egotea edo lan-kontraturik ez edukitzea.
- » Laguntza hau eta genero-indarkeriaren biktimak gizarteratzeko errenta aktiboa jaso ez izana.
- » Dagokion foru-ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez edukitzea.
- » Diru-sarrereren muga ekonomiko bat ez gainditzea; hain zuzen ere, indarrean den lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75, aparteko bi ordainsariren zati proportzionala kontuan hartu gabe.

- ▶ **Gizarte-larrialdietarako laguntzak (Eusko Jaurlaritza)**
info+ webean

Etxeko edo familia barruko indarkerien biktimak izateagatik ohiko etxebizitza utzi behar izatearen ondorioz beste bizikidetzaren unitate bat sortu dutenek jaso ahalko dute; betiere, unitate berrian aurreko bizikidetzaren unitateko kideak baino ez badaude. Etxeko edo familia barruko indarkeriaren biktimek 18 urte baino gutxiago eduki ditzakete. Judizialki egiaztatu behar da tratu txarrak egon direla.

- ▶ **Udalaren prestazio ekonomikoak**

Gasteizko Udalak oinarrizko premiak estaltzeko prestazio ekonomiko batzuk eskaintzen ditu, balorazio profesionalaren mende. Genero-indarkeriaren biktima-izaera egoera bereizitzat jo daiteke, prestazio ekonomikoak eskaintzea egokia ote den baloratzeko orduan.

► **Bestelako prestazio ekonomikoak:**

- » **Elektrizitatearen gizarte-bonua** (Espainiako Gobernuak). Elektrizitatearen fakturan deskontu bat ezartzeko bonua da. Bonua eskatzeko betekizunaren artean, inguruabar bereziak kontuan hartzen dira, eta, inguruabar horien artean, genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatuta izana dago. Horrelakoetan, urteko errentaren gainean ezarritako mugak 0,5 puntutan igotzen dira. Gizarte-bonua telefonoz, posta elektronikoz, ohiko postaz edo faxez eskatzen da, erreferentziarako merkaturatzaileetako batean; haiek gizarte-bonua eskaini eta finantzatzeko betebeharra daukate.

► **ITZULPEN- ETA INTERPRETazio-ZERBITZUA⁸:**

Gasteizko Udaleko udal-langileek hainbat itzulpen- eta interpretazio-zerbitzu dauzkate eskura, arreta bermatzeko: itzultzaileen eta interpreteen poltsa, hizkuntzen arabera antolatuta; mugikorren bidezko teleinterpretazio-zerbitzua eta zeinu hizkuntzako interpreteen zerbitzua. Edozein esku-hartze psikosozial edo polizial egiteko interpreteta behar bada, profesional interesdunak eskaera bidali behar du hona: komunika@vitoria-gasteiz.city (4. eranskina). Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzua arduratzen da zerbitzuaz.


► **BESTELAKO BALIABIDEAK:**

- » **Osasun-zerbitzuak.** [Gasteizko Udalaren gizarte-zerbitzuak eta Osakidetza Arabako Lehen Arretako Unitateak lankidetzan aritu eta koordinatzeko protokolo bat dago, 2013an sinatu eta 2015ean eguneratu zena.](#)
- » **Gizarteratzeko eta laneratzeko baliabideak.** Enplegurako prestatzeko eta enplegu-prestakuntzako programak dira. Programa horien bidez, gizarte-zaurgarritasunerako arriskuan dauden langabetuei laneratzeko aukerak dauzkaten lan-eremuetan lan egiteko prestakuntza integrala eta gaikuntza ematen zaizkie. Indarkeria matxistaren biktima artatzen duen gizarte-langileak beste baliabide batzuk eskaintzea egokia ote den baloratzen du. Besteak beste, gaztelaniako klaseak nabarmentzen dira.


Bestetik, ziurtapena duten biktimek genero-indarkerian aditua den tutore bat eduki dezakete Lanbideko bulegoan, bidelaguntza eta aholkularitza espezializatua jasotzeko.

⁸ Zalantzak argitzeko, Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzua: 945 161616. Luz.: 2623.


Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren edo genero barruko indarkeriaren kasua sartu da



UDALTZAINGOA – GENEROKO ETA FAMILIAKO INDARKERIAREN TALDEA



UDALTZAINGOA – SALAKETEN TALDEA



8.4. JARRAIPENERAKO EGITURAK

Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, haiekin esku hartzeko eta haien bidelagun aritzeko III. Udal Protokoloa ebaluatu eta egin ondoren, eremu horretan dauden protokoloen jarraipena egiteko egitura bat sortu da udal-mailan. Hortaz, egitura horrek, arretaren eta koordinazioaren jarraipena egiteko ez ezik, jendaurreko erantzunaren eta kontu-ematearen jarraipena egiteko ere balio behar du, ahaleginak, denborak eta baliabideak bikoiztu ez daitezzen eta Gasteizko Udalean maila ezberdinetan indarkeria matxistaren eremuan egiten den esku-hartze osoari ikuspegi orokorra eman dakion.

Bada, honako egitura hau proposatzen dugu:

- ▶ **Batzorde Politiko-Teknikoa.** Prozesuaren hasieran, Batzorde Politikoa eta Zuzendaritzen Batzordea (inplikaturata dauden hiru sailtako zuzendaritzek eta buruzagitzek osatua) bereizten ziren, baina bitariko batzorde bat sortzea erabaki zen, hiru zinegotzi-goak eta hiru zuzendaritzak elkartzeko. Biler horietara, zerbitzuen zuzendaritzek hautatutako buruzagitzak (Berdintasuna, Inklusioa...) eta/edo berdintasun-teknikari bat (prozesuaren koordinatzaile gisa) joan daitezke.

Batzorde Politiko-Teknikoak indarkeria matxistaren eremuan egin diren jarduketak aztertuko ditu, eta detektatzen dituen premien inguruan eztabaidatuko. Berez, urtean behin elkartuko da, eta honako eginkizun hauek edukiko ditu:

- » Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, horiekin esku hartzeko eta haien bidelagun aritzeko III. Udal Protokoloaren ezarpenari jarraipena egitea.
- » Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloari jarraipena egitea.
- » Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren inguruan kontu emateko zifren eta datuen txostenari jarraipena egitea (urteko lehen hiruhilekoan egingo da txostena).
- ▶ **Lantalde teknikoa,** inplikaturatako hiru sailtako teknikariek osatua. Berdintasunerako Zerbitzuak koordinatuta, talde honek Protokoloaren ezarpenaren gaineko jarraipena egingo du, eta jarraitutasuna emango dio Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, haiekin esku hartzeko eta haien bidelagun aritzeko III. Udal Protokoloa ebaluatu eta egin bitartean hasitako lanari. Gutxienez, urtean bi aldiz elkartuko da, eta honako eginkizun hauek edukiko ditu:
 - » Esku-hartzean eta bidelaguntzan hautemandako jarduera onak eta zailtasunak partekatzea.
 - » Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, haiekin esku hartzeko eta haien bidelagun aritzeko profesionalen esku-hartzea hobetuko duen lan-plan espezifikoa bat egin eta plan horren jarraipena egitea edo jarduketa espezifikoa diseinatzea.
 - » Batzorde Politiko-Teknikora igotzeko eskaerak biltzea.

8.5. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Indarkeria matxistaren arloan jarraipen egokia eta ebaluazio etengabea egiteko bi lan-tresna aurreikusten dira: batetik, kontu emateko zifren eta datuen txostena, eta, bestetik, indarkeria matxistaren arloko agenda edo programazioa.

Kontu emateko txostena:

Indarkeria Matxistaren aurrean Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloan onetsi dena betetzeko, urtean behin, alderdi politikoei komunikazio bat bidali ondoren, jendaurrean aurreikusi da Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren inguruan kontu emateko zifren eta datuen txostena.

Txostena urteko lehen hiruhilekoan egingo da, Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren arloan emandako arretaren inguruan biltzen dituen datuekin. Estatistika orokorrak emateaz gain, Jendaurreko Erantzuna emateko Protokoloan aurreikusi denez, egoera zehatz bat hartu ahalko da indarkeria horren aurrean nola jardun den azaltzeko, edo, bestela, kolektiboren bat gonbida daiteke, aurrez aurre duen indarkeria partikularrari buruzko iritzia eman dezan.

Banakako kasuen gaineko informazio zehatzetik harago joango den analisian zentratu nahi da indarkeria matxistaren problematikaren analisia, eta helburu hori dauka ekintza horrek. Berdintasunerako Zerbitzuak egingo du txostena, Gasteizko Udalaren Gizarte Politiketako, Adinekoen eta Haurren Sailarengandik eta Herritarren Segurtasunerako Sailarengandik jasotako datuetatik abiatuta.

Dokumentuan, hiru sailen artean adostutako aldagaiak jasoko dira, eta, aldi berean, informazioaren sistematizazioa hobetuko da, urterik urte analisi hobek egiten joateko asmoarekin. Aldagaiak, oro har, honako hauek izango dira:

- ▶ Biktimen kopuruari eta indarkeria motei buruzko aldagai kuantitatiboak
- ▶ Erasotzaileari buruzko aldagaiak
- ▶ Udalaren zerbitzu publikoetara indarkeria matxistaren ondorioz laguntza eske joaten diren emakumeen eta LGTBI pertsonen ezaugarriei buruzko aldagaiak
- ▶ Emakumeek nahiz LGTBI pertsonak jasandako indarkeria motari eta indarkeria horri aurre egiteko estrategiei buruzko aldagaiak
- ▶ Erakundeek erantzuteko duten gaitasunari buruzko aldagaiak.

Ebaluatze eta etengabeko hobetzeko plan sektoriala:

Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, haiekin esku hartzeko eta haien bide-lagun aritzeko III. Udal Protokoloari etengabeko jarraipena egin ahal izateko, indarkeria matxistaren arloan garatuko diren helburu eta ekintza zehatz batzuk ezarriko dituen lan-plan espezifiko bat beharko da. III. Protokoloa egin aurreko ebaluazio-prozesuan azalera-tu ziren helburu eta ekintza horiek; beraz, jarduketok ordenatu eta berrantolatzea izango da lantalde teknikoaren eginkizunetako bat.

2003tik 2005era, ezaugarri horiek biltzen zituen plan bat eduki zuen Udalak, eta emaitzak onak izan ziren. Erakutsi zenez, horrelako ezaugarriak dituen tresna bat edukitzeak mesede egiten dio denboran zehar premiak eta aukerak detektatzeari, eta indarreko protokoloen eraginkortasuna etengabe ebaluatzea ahalbidetzen du.

9. ERANSKINAK

- 1.** Indarkeria-kasu bat gizarte-zerbitzuen mendekoa ez den udal-baliabide edo -zerbitzu batetik sartzen denean. Kontuan hartu beharreko gakoak.
- 2.** Genero-indarkeria dagoela administrazio-mailan egiaztatzeko ereduak.
- 3.** Txosten psikosozialaren ereduak.
- 4.** Itzulpen- eta interpretazio-zerbitzua eskatzeko inprimakia.
- 5.** IRIS proiektuaren galdetegia, desgaitasuna dutenengan indarkeria-egoerak identifikatzekoak.
- 6.** Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitza-arloan dituzten berezitasunak. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren argibideak

1. ERANSKINA. Indarkeria matxistaren kasu bat gizarte-zerbitzuen mendekoa ez den udal-baliabide edo -zerbitzu batetik sartzen denean. Kontuan hartu beharreko gakoak⁹

Ohikoa izan ez arren, batzuetan, udal-baliabide edo -zerbitzuek (hala nola, Hezkuntzak, Gazteriak, Herritarren arretak, Emakumeen Etxeak...) indarkeria matxistarekin zerikusia daukaten gaiei buruzko kontsultak jasotzen dituzte, edo biktima bat zein haren ingurunea zerbitzu horietako batekin harremanetan jartzen da telefonoz, posta elektronikoz edo aurrez aurre.

Bada, horrelakoetan oso kontuan hartu behar da teknikariak, bere lan-eremuan egiten duen sentsibilizazio- eta prebentzio-lanetik harago, ezin dezakeela biktimarekin edo haren ingurunearekin esku hartu eta zerbitzu edo baliabide espezializatuera bideratu beharko duela. Behar bezala jarduteko, harrera ona **egiteko gakoez gain (18. orrialdean daude)**, honako hau ere aintzat hartu beharko da:

Indarkeria matxistaren kasuetan, Udalaren gizarte-zerbitzuak (UGZ) dira erreferentziazko zerbitzu nagusia, eta inolako konpromisorik gabe informatzen dute prozeduren, baliabideen edo sor litezkeen zalantzen inguruan. Gizarte-etxeetan dauden oinarrizko gizarte-zerbitzuetan ere informazioa eska daiteke; bizilekuaren arabera, herritar bakoitzari bat dagokio.

Generoko edo genero barruko indarkerien kasuetan, emakumeak edo LGTBI pertsonak bikotea haustea erabakitzen badu eta familia aurretik erreferentziazko UGZn artatzen bazen, espedienteak banantzen dira; hau da, biktimarioaren espedientea Udalaren beste gizarte-zerbitzu batera eramaten da, topo egin ez dezaten. Biktima aurretik UGZn artatzen ez bazen eta ez badaki zein gizarte-etxe dagokion, bilaketa azkarra egin daiteke [udalaren webean horretarako prestatu den estekan](#), interesdunaren helbidea sartuta¹⁰.

Gainera, [webean](#) Udalaren gizarte-zerbitzuei buruzko informazio interesgarri gehiago aurki daiteke.

Duela gutxi gertatutako sexu-erasoa bada (72 ordu baino gutxiago), ez garbitzeko eta arropa ez aldatzeko esango diogu biktimari, eta, ahoaren bidez eraso egin badiote, ez edateko eta ez jateko ere esango diogu. Familian edo bikotean sexu-erasoa egin badiote eta salaketa jarri nahi badu, Udaltzaingoari abisatu behar zaio. Ezezagun batek sexu-erasoa egin badio eta salaketa jarri nahi badu, berriz, Ertzaintzari abisatu behar zaio.

Biktimak salaketa jarri nahi ez badu baina osasun-arreta eskatzen badu, Txagorritxu ospitalera deribatu edo lagunduko diogu, adieraztearekin batera handik deituko dutela eta auzitegi-medikua ospitalera iritsi arte itxarongo dutela, mediku-azterketa eta lagin-bilketa egin diezazkion. Baliteke artatzen duen medikuak protokolo espezifikoa aktibatu eta polizia-agintaritzari abisatzea.

⁹ Udalaren intraneten dagoen liburuxkarako sarbide zuzena: <https://pintra.vitoria-gasteiz.org/docs/ib021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/37/35/93735.pdf>

¹⁰ Batzuetan, ez dute beren gizarte-etxera joan nahi izaten, ez ditzaten "identifikatu" edo ezagutu. Horrelakoetan, beste zentro batera joan daitezke, baina beti komeni da egokitzen den horretara joatea; izan ere, behin espedientea irekitzen denean, baliabide eta zerbitzu guztiak eroldaren helbidera lotzen dira. Beraz, beti da hobe egokitzen den gizarte-zerbitzura jotzea, arreta kalitatezkoa izan dadin.

AINTZAT HARTU BEHAR DIREN BALIABIDEAK, BIKTIMA EDO INTERESDUNA HORIETARA BIDERATZEKO

▶ **GLUZ (Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua)**

Tel.: 945 13 44 44

Edozein unetan joan daiteke bertara, edo deitu, baita larrialdia ez bada ere. Pre-saz esku hartu behar bada edo emakumea arriskuan badago, zuzenean deituko da GLUZera. Zalantzarik egonez gero, hauxe izango da erreferentziazko zerbitzua, bai hasierako harrera egiten ari den udal-baliabidearentzat, bai kontsulta duenarentzat.

▶ **HEGOAK**

Aurretiko hitzordua: 945 15 10 15 edo 945 12 48 92

Foru-eskumeneko zerbitzua da, doakoa eta espezializatua, eta genero-indarkerian espezializatutako lege-aholkularitza eta arreta psikologikoa ematen ditu. Zuzeneko sarbidea dauka; beraz, pertsona harremanetan jar daiteke, gizarte-zerbitzuetatik deribatu gabe.

▶ **Udaltzaingoa**

Gertakariak eta larrialdiak artatzeko tel. orokorra:

Polizia Koordinaziorako Zentrala: 092 eta 945 15 80 00

GI/FI Taldearekin zuzenean: 945 16 16 35

Biktimak salaketa jarri nahi badu, hauxe da salaketa jartzeko tokia; horretaz gain, generoko, genero barruko eta familiako indarkeria-gaietan espezializatutako talde bat dago. Teknikaria Generoko eta Familiako Indarkeriaren Taldeko arduradunarekin harremanetan jar daiteke, baita posta elektronikoz ere (proteccion6.policia@vitoria-gasteiz.org). Indarkeria LGTBIfobikoa bada, berriz, Udaltzaingoaaren Salaketen Taldearekin kontaktatuko du (ustezko gorroto-delitua delako), 945 16 14 23 telefono-zenbakiaren bidez edo posta elektronikohauen bidez: inspeccionguardia@vitoria-gasteiz.org edo resinspeccion.policia@vitoria-gasteiz.org

▶ **GOIZARGI**

goizargiemakumeak@gmail.com

Indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakumeen Gasteizko elkarte da, eta emakumeen bidelagun aritzen dira, modu informalean aritu ere, genero-indarkeriaren prozesuaren une ezberdinetan.

► **IKUSGUNE: Gasteizko LGTBifobiaren kontrako Behatokia**

info@ikusgune.eus

Kontsultetarako telefono-zk: 945282246 / Erasoengatik: 633 309 653

Indarkeria LGTBifobikoa (baita genero barrukoa ere) gertatu bada, Ikusgune da informazio espezifikoa jasotzeko nahiz bidelaguntza eskatzeko tokirik egokiena.

► **Emakumeen Etxea**

Etxanobe jauregia, Santa Maria kalea, 11

Tel.: 945 16 12 14

emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city / igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Emakumeen Etxea hiriko etxe feminista da, eta, banakako nahiz taldeko ahalduntze feministari bide emateaz gain, gizartea berdintasuna bermatze aldera eraldatzeko tokia da. Etxeak hiriko talde eta elkarteek proposatzen dituzten prozesu eta egitasmo feministak hartzen ditu. Sorgineneak kudeatzen duen liburutegi feminista dauka (Eleen Ganbara), eta denboraren banku feminista batean parte hartzeko aukera ematen du: Kanbalatxe Feminista.

» **Jabetze Feministarako Eskola.** Jabetze Feministarako Eskolak, Etxearen prestakuntza-tresnak, hamaika edizio baino gehiago daramatza hirian feminismoa hedatzen, prestakuntza- eta kultura-proposamenen bidez: hitzaldiak, ikuskizunak eta proiektioak, irakurle-klubak, ikastaroak eta lan-tergiak eta #FeminismoanItzel egitasmoa (haur eta nerabeentzat).

Jarduera eta gune mota horiek (in)formatzen, egoera berean dauden beste pertsona batzuk ezagutzen, laguntza-sareak sortzen eta, besteak beste, eremu honetan lan egiten duten baliabideak eta elkarteak ezagutzen lagundu diezaioke biktimari...

INTERESEKO BESTE TELEFONO/ZERBITZU BATZUK

► **Gurasoen aurkako indarkeria-egoeretan garaiz esku hartzeko programa:**

Tel.: 647 304 752

Hitzordua eskatzeko: oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez, 09:00etatik 14:00etara.

► **ZEUK ESAN (EJ):** Hurrei eta nerabeei laguntzeko telefono-zerbitzua.

Doakoa eta anonimoa.

Tel.: 116 111

- ▶ **SATEVI (EJ): Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko telefono-zerbitzua.**

Tel.: 900 840 111. Doakoa eta anonimoa da, eta ez du aztarnarik uzten.

Telefono-zerbitzu honetan, profesional espezializatuek erantzuten dute. 51 hizkuntzatan erantzun dezakete, eta entzumen-desgaitasuna nahiz hitz egiteko zailtasuna dutenei bideo-interpretazioko web kanal baten bidez ematen die arreta (horretarako, WebRTC proiektuarekin bateragarria den nabigatzailea eduki behar da -Chrome edo Firefox-).

- ▶ **Berdindu (EJ). LGTBI pertsonen zuzendutako arreta psiko/juridikoa**

Ramiro Maeztu. 3

Tel.: 945 02 90 79

- ▶ **BLZ. Epaitegietan biktimari laguntzeko zerbitzua**

Tel.: 945 004 895 / 900 180 414 (doakoa)

Justizia Jauregian dago

- ▶ **CEAR. Errefuxiatu eta asilo-eskatzaileentzat**

Tel.: 945 26 68 05

Aldabe kalea, 7

Asiloa indarkeria sexistarengatik edo indarkeria LGTBIfobikoarengatik eskatzen bada, CEAREk baliabide espezifikoak dauzka: psikologikoak, juridikoak, egoitza-erakoak...

- ▶ **Gazteentzako aholkularitza-entitateak, Gazteen Zerbitzuak** kudeatzen dituenak

» **Sexu-aholkularitza.** Udal-zerbitzu honek sexualitatearen inguruko aholkularitza ematen die gazteei. Eskoletan hitzaldiak ematen dituzte, eta familiekin eta gazteekin lan egiten dute, sexu- eta genero-aniztasunaren inguruan.

asexoria@vitoria-gasteiz.org

Tel.: 945 16 15 83

» **Psikoaholkularitza.** Zerbitzu honetan, profesional batzuek aholkularitza psikologikoa ematen diete 14 eta 30 urte arteko gazteei, doan eta konfidentziaz. Halaber, osasun psikologikoaren inguruko kontuei buruzko hitzaldiak ematen dituzte.

psicoasesoria@vitoria-gasteiz.org

Tel.: 945 161 904

» **Lege-aholkularitza.** Doako udal-zerbitzu honetan, abokatu batzuek 16 eta 35 urte arteko gazteak orientatzen dituzte, eta aholku ematen diete, modu erabat konfidentzian.

asejurjovent@vitoria-gasteiz.org

Tel.: 945 161 330

2. ERANSKINA

Genero-indarkeria dagoela administrazio-mailan egiaztatzeko ereduak

GENERO-INDARKERIAREN EGOERA EGIAZTATZEN DUEN ZIURTAPENA/TXOSTENA, GIZARATERATZEKO ERRENTA AKTIBOA (GEA) ESKATZEKO

GENERO-INDARKERIAREN EGOERA EGIAZTATZEKO ZIURTAPENA/TXOSTENA

Erakundearen datuak

..... jaun/andreak,
organismo edo erakunde honetako gisa:

- ▶ Toki-erakundea:
- ▶ Harrera-zentroa:
- ▶ Administrazio Publiko zehatz batek genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko xedez diruz lagundutako erakundea (adierazi deialdiaren izena eta deialdia aldizkari ofizialean argitaratu zen eguna):

Behar ekonomiko bereziak eta lana aurkitzeko zailtasunak dituzten langabetuak gizar-teratzeko errenta aktiboaren programa arautzen duen azaroaren 24ko 1369/2006 Errege Dekretuaren 2.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau.

ADIERAZTEN DUT:

..... **andrea**, **NAN / AIZ / pasaportearen duena**, organismo/erakunde honetan artatzen ari gara **genero-indarkeriaren biktima** gisa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan xedatzen denarekin bat etorriz.

Eta, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan **gizarteratzeko errenta aktiboa** eskatzen duenean edo beste kudeaketa batzuk egiten dituenean aurkez dezan, ziurtapen hau egin dugu, adierazitako toki eta egunean.

....., (e)koarena

Sinadura eta zigilua

GENERO-INDARKERIAREN EGOERA EGIAZTATZEN DUEN ZIURTAPENA/TXOSTENA, LANBIDEN BIZITZEKO GUTXIENEN ERRENTA (BGE) ESKATZEKO

GENERO-INDARKERIAREN EGOERA EGIAZTATZEKO ZIURTAPENA/TXOSTENA

Erakundearen datuak

..... jaun/andreak,
organismo edo erakunde honetako gisa:

- ▶ Autonomia-erkidegoa:
- ▶ Toki-erakundea: VITORIA-GASTEIZ
- ▶ Harrera-zentroa:
- ▶ Administrazio Publiko zehatz batek genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko xedez diruz lagundutako erakundea (adierazi deialdiaren izena eta deialdia aldizkari ofizialean argitaratu zen eguna):

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:

..... **andrea**, **NAN / AIZ / pasaporte duena**,
organismo/erakunde honetan artatzen ari gara **genero-indarkeriaren biktima** gisa,
genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzko abenduaren
28ko 1/2004 Lege Organikoan xedatzen denarekin bat etorritz.

Eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan **bizitzeko gutxieneko errenta** eskatzen due-
nean aurkez dezan, ziurtapen hau egin dugu, adierazitako toki eta egunean.

....., (e)koarena

Sinadura eta zigilua

**GENERO-INDARKERIAREN EGOERA EGIAZTATZEN DUEN ZIURTAPENA/TXOSTENA,
LANBIDEN DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (DSBE) ESKATZEKO**

GENERO-INDARKERIAREN EGOERA EGIAZTATZEKO ZIURTAPENA/TXOSTENA

Erakundearen datuak

..... jaun/andreak,
organismo edo erakunde honetako gisa:

- ▶ Autonomia-erkidegoa:
- ▶ Toki-erakundea: VITORIA-GASTEIZ
- ▶ Harrera-zentroa:
- ▶ Administrazio Publiko zehatz batek genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko xedez diruz lagundutako erakundea (adierazi deialdiaren izena eta deialdia aldizkari ofizialean argitaratu zen eguna):

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:

..... **andrea**, **NAN / AIZ / pasaporte duena**,
organismo/erakunde honetan artatzen ari gara **genero-indarkeriaren biktima** gisa,
genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren
28ko 1/2004 Lege Organikoan xedatzen denarekin bat etorritz.

Eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan **diru-sarrerak bermatzeko errenta** eskatzen
duenean aurkez dezan, ziurtapen hau egin dugu, adierazitako toki eta egunean.

....., (e)koarena

Sinadura eta zigilua

3. ERANSKINA

Txosten psikosozialaren eredia

TXOSTEN PSIKOSOZIALA INFORME PSICOSOCIAL				Premiazkoa Urgente			
1. IDENTIFIKAZIO DATUAK DATOS DE IDENTIFICACIÓN							
1.1. IDENTIFIKAZIO PROFESIONALAREN DATUAK DATOS DE IDENTIFICACIÓN PROFESIONAL							
Zerbitzua <i>Servicio</i>				Harrera bulegoa edo atala <i>Oficina de Atención o Unidad</i>			
Profesionalak <i>Profesionales</i>	Gizarte laguntzailea <i>Trabajador/a social</i>						
	Psikologoa <i>Psicólogo/a</i>						
TXOSTENAREN ZERGATIA / MOTIVO DEL INFORME							
Jakinarazpena edo erantzuna, beste zerbitzu edo erakunde jakin baten informazio-eskaerari / <i>Notificación o respuesta a una demanda de información por parte de otro organismo</i> <i>Premiazko txostena bada, premia azaldu beharko da</i>							
NORI ZUZENDUA / DIRIGIDO A:							
1.2. DOSIERA IDENTIFIKATZEKO DATUAK DATOS DE IDENTIFICACIÓN DEL EXPEDIENTE							
		Familiaren Kodea <i>Código Familia</i>					
Txostenaren Subjektua <i>Persona sujeto del informe</i>							
Helbidea <i>Domicilio</i>					Telefonoa <i>Teléfono 1</i>		
					Telefonoa <i>Teléfono 2</i>		
1.3. DATU PERTSONAL ETA/EDO FAMILIARRAK DATOS PERSONALES Y/O FAMILIARES							
Izen-abizenak <i>Nombre y Apellidos</i>	NAN-AIZ <i>DNI-NIE</i>	Ahaidetasun maila <i>Parentesco</i>	Sexua <i>Sexo</i>	Egoera zibila <i>Estado Civil</i>	Jaioteguna <i>Fecha nacimiento</i>	Nazionalitatea <i>Nacionalidad</i>	Okupazioa <i>Ocupación</i>

Beste telefono interesgarri batzuk <i>Otros teléfonos de interés</i>	Telefonoa <i>Teléfono 1</i>	
	Telefonoa <i>Teléfono 2</i>	
Bikotearen bizikidetzta-egoera <i>Situación convivencia de pareja</i>		
Seme-alaben filiazio datuak eta legezko egoera <i>Datos filiación y situación legal de los hijos e hijas</i>		
Harremanean dauden beste pertsona batzuk <i>Otras personas relacionadas</i>		<i>Identifikazioa, txostenaren subjektuarekiko harremana eta harremanetan jartzeko datuak</i>

2. FAMILIA-EGITURA **ESTRUCTURA FAMILIAR**

Genograma

3. AURREKARI PERTSONALAK ETA/EDO FAMILIARRAK **ANTECEDENTES PERSONALES Y/O FAMILIARES**

3.1. AURREKARI PERTSONAL ETA/EDO FAMILIARRAK **ANTECEDENTES PERSONALES Y/O FAMILIARES**

Familiaren funtzionamendua, esperientziak eta bizi-estiloak, aurrekari esanguratsuak

3.2. ESKU-HARTZEAREN AURREKARIAK **ANTECEDENTES DE LA INTERVENCIÓN**

Familiak beste laguntza-sistema batzuekin duen harremana eta Udalaren gizarte-zerbitzuekin duen harremana

4. EGUNGO EGOERA PERTSONAL ETA/EDO FAMILIARRA
SITUACIÓN ACTUAL PERSONAL Y/O FAMILIAR

4.1. PRESTAKUNTZA-LAN-EKONOMIAREN ALORRA
ÁREA FORMATIVA-LABORAL-ECONÓMICA

Ikasketa-mailak, laneko datuak, familiaren diru-sarrerak eta gastuak

4.2. BIZILEKUAREN ALORRA
ÁREA DE VIVIENDA / ALOJAMIENTO

Etxebizitzaren edukitza-erregimena eta egoera

4.3. HEZKUNTZA ETA ESKOLAREN ALORRA
ÁREA EDUCATIVA Y ESCOLAR

Adingabeen eskola-datuak

4.4. OSASUNAREN ALORRA
ÁREA DE SALUD

Familiako ohitura osasungarriak eta kaltegarriak, osasun-arazoak

4.5. ARLO SOZIAL ETA KOMUNITARIOA
ÁREA SOCIAL Y COMUNITARIA

Komunitateko parte-hartzea, babes soziala

4.6. DINAMIKA PERTSONAL ETA/EDO FAMILIARRA
DINÁMICA PERSONAL Y/O FAMILIAR

Familiaren antolaketa, familia-harremanak, premiak/arazoak, indarguneak

4.7. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK
OTROS DATOS DE INTERÉS

5. EBALUAZIO PSIKOLOGIKOA
EVALUACIÓN PSICOLÓGICA

Pertsona, zeharkako iturrien datuak, miatutako arloak eta, erabilitako proba diagnostikoetan oinarrituta, helburuak, emaitzak eta ondorioak

6. DIAGNOSTICO PSIKOSIZIALA
DIAGNÓSTICO PSICOSOCIAL

Pertsonaren/familiaren eskaera, hipotesi argitzailea, mugak eta indarguneak, pronostikoa

7. ESKU-HARTZE PROFESIONAL PLANA
PLAN DE INTERVENCIÓN PROFESIONAL

Helburuak, ekintzak, baliabideak, denborazkotasuna

8. FITXA TEKNIKOA
FICHA TÉCNICA

Informazio iturriak <i>Fuentes de información</i>	
Erabilitako diagnostiko tresnak <i>Herramientas de diagnóstico utilizadas</i>	<i>Erabilitako tresnen izen osoa, argitaletxea eta urtea</i>
Egindako elkarrizketak <i>Entrevistas realizadas</i>	
Koordinazioak <i>Coordinaciones</i>	

Gasteizen,(e)ko(a)ren(e)an / *Vitoria-Gasteiz a de de*

Fdo. Gizarte laguntzailea /
Trabajador/a social

Zerbitzuetako arduradunaren oniritzia /
VºBº Responsable de la unidad o servicio

Fdo. Psikologoa /
Psicóloga/o

4. ERANSKINA

Itzulpen- eta interpretazio-zerbitzua eskatzeko inprimakia

INTERPRETAZIO-ZERBITZUA ESKATZEKO INPRIMAKIA

1. ESKATZAILEA

- ▶ Zerbitzu/erakunde eskatzailea:
- ▶ Erreferentziako pertsonaren izen-abizenak:
- ▶ Telefono-zenbakia:
- ▶ Posta elektronikoaren helbidea:
- ▶ Eskaera bidali den eguna eta ordua:

2. ZERBITZU MOTA ETA OINARRIZKO INFORMAZIOA (ESKATZAILEAK BETE BEHAR DU)

- ▶ Pertsona/familia erabiltzailearen hizkuntza:
- ▶ Pertsonaren/familiaren jatorrizko herrialdea:
- ▶ Elkarrizketaren eguna eta ordua:
- ▶ Elkarrizketaren tokia:
- ▶ Bertaratuko direnen kopurua (guztien sexua adierazi):
 - » Kopurua:
 - » Sexua: MASK / FEM / EZ BITARRA
- ▶ Zehaztu genero-indarkeriaren kasua bada:
- ▶ Oharrak:
.....
.....

3. ZERBITZUAREN BERRESPENA (ENPRESA KUDEATZAILEAK BETE BEHAR DU)

- ▶ Interpretaren izen-abizenak:
- ▶ Sexua:
- ▶ Jatorrizko herrialdea:

4. ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BALORAZIOA (ESKATZAILEAK BETE BEHAR DU, ZERBITZUA EGIN ONDOREN)

- ▶ Zerbitzuaren berrespena jaso den egun eta ordua:
- ▶ Interpretazioaren iraupena:
- ▶ Egindako interpretazioaren balorazioa, 1etik 5era:
- (5: Bikaina / 4: Ona / 3: Erdipurdikoa / 2: Txarra / 1: Oso txarra)
- ▶ Oharrak:
.....
.....
.....

ITZULPEN-ZERBITZUA ESKATZEKO INPRIMAKIA

1. ESKATZAILEA

- ▶ Zerbitzu/erakunde eskatzailea:
- ▶ Erreferentziako pertsonaren izen-abizenak:
- ▶ Telefono-zenbakia:
- ▶ Posta elektronikoaren helbidea:
- ▶ Eskaera bidali den eguna eta ordua:

2. ZERBITZU MOTA ETA OINARRIZKO INFORMAZIOA (ESKATZAILEAK BETE BEHAR DU)

- ▶ Jatorrizko testuaren hizkuntza:
- ▶ Itzuliko den testuaren jatorrizko herrialdea:
- ▶ Dokumentu/testu mota:
- ▶ Hitz-kopurua:
- ▶ Testuaren luzera (orrialde-kop.):
- ▶ Sexua: zerbitzua jasotzen duenarena: MASK / FEM / EZ BITARRA
- ▶ Oharrak:
.....
.....

3. ZERBITZUAREN BERRESPENA (ENPRESA KUDEATZAILEAK BETE BEHAR DU)

- ▶ Interpretaren/itzultzailearen izen-abizenak:
- ▶ Itzulpena entregatu den eguna:

4. ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BALORAZIOA (ESKATZAILEAK BETE BEHAR DU, ZERBITZUA EGIN ONDOREN)

- ▶ Zerbitzuaren berrespena jaso den egun eta ordua:
- ▶ Itzulpena jaso den egun eta ordua:
- ▶ Egindako itzulpenaren balorazioa, 1etik 5era:
(5: Bikaina / 4: Ona / 3: Erdipurdikoa / 2: Txarra / 1: Oso txarra)
- ▶ Oharrak:
.....
.....
.....

5. ERANSKINA

IRIS proiektuaren galdetegia, desgaitasuna dutenengan indarkeria-egoerak identifikatzekoa

INDARKERIA EGOERAK IDENTIFIKATZEKO GALDERA-SORTA

Data:
Langilea:

1. IDENTIFIKAZIOA

Abizenak:
Izena:
Jaioteguna: Egoera zibila:
Historia-zenbakia:

2. EZGAITASUNA

ELBARRITASUN DIAGNOSTIKOA

Ehunekoa		Behin-behinekora		Behin betikoa	
----------	--	------------------	--	---------------	--

Diagnostiko-data:

MEDIKAZIOA	BAI	EZ	Mota	Dosia
------------	-----	----	------	-------

ALDIZKAKO AZTERKETAK	BAI	EZ	Non
----------------------	-----	----	-----

OSPITALIZAZIOA	BAI	EZ	Iraupena
----------------	-----	----	----------

ZAINTZA BEREZIAK	BAI	EZ	Zeintzuk
------------------	-----	----	----------

BERE EZGAITASUNAK LAN EGITEN / IKASTEN UZTEN DIO	BAI	EZ
--	-----	----

3. ELKARRIZKETAREN ARRAZOIA

--

4. TESTUINGURU PERTSONALA, FAMILIARRA ETA SOZIALA

Bakarrik bizi da	BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>
------------------	-----	--------------------------	----	--------------------------

Norekin bizi da?:

Seme-alabak ditu?	BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>		
Seme-alaben kopurua	<input type="text"/>					
Adinak	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Mendekotasun ekonomikoa	
<input type="checkbox"/>	Emakumea bakarrik
<input type="checkbox"/>	Bikotekidea
<input type="checkbox"/>	Senideak
<input type="checkbox"/>	Erakundearena
<input type="checkbox"/>	Estatuarena

Nolako harremana du berarekin bizi diren pertsonekin?	
<input type="checkbox"/>	Afektiboa eta egonkorra da denekin (1)
<input type="checkbox"/>	Afektiboa eta egonkorra da batzuekin (2)
<input type="checkbox"/>	Ez du harreman afektibo edo egonkorrik berarekin bizi diren pertsonekin (3)

Erantzunak (2) eta (3) badira:
Nor da?:

Zergatik?:

Bizi zaren tokian, eguneroko bizitzako gaiei buruzko erabakiak hartzeko aukerarik duzu normalean? (adibidez: noiz jaiki eta oheratu, zer jan, etab.)

Zure bizitzarako erabaki garrantzitsuak ere hartzen dituzu? (adibidez: non bizi, lan egin edo ez, nola administratu dirua)

Hirugarren baten laguntza behar duzu?	BAI		EZ	
---------------------------------------	-----	--	----	--

Nork laguntzen dizu?

<input type="checkbox"/>	Senideak
<input type="checkbox"/>	Lagunak
<input type="checkbox"/>	Auzokideak
<input type="checkbox"/>	Laguntzaile pertsonalak (gizonak)
<input type="checkbox"/>	Laguntzaile pertsonalak (emakumeak)
<input type="checkbox"/>	Etxeko laguntzaileak (gizonak)
<input type="checkbox"/>	Etxeko laguntzaileak (emakumeak)

Zure ustez, jasotzen duzun laguntza hori da:

<input type="checkbox"/>	Ona	<input type="checkbox"/>	Hala moduzkoa	<input type="checkbox"/>	Txarra
--------------------------	-----	--------------------------	---------------	--------------------------	--------

Nolakoa da familia zabalarekiko harremana? Maiz jartzen zara harremanetan senideekin?

<input type="checkbox"/>	Harremana estua eta ohikoa da
<input type="checkbox"/>	Ezohiko kontaktuak ditu
<input type="checkbox"/>	Azken urtean ez du senideekin harremanik izan.

Harremana ohikoa ez bada: Zer dela-eta? Maizago jarri nahi zenuke harremanetan?

Nolakoa da lagun, auzokide, lankide eta abarrekiko harremana? Haiekin aldizka harremanetan jartzen zara?

<input type="checkbox"/>	Ohikoa eta estua da. Normalean, haiekin partekatzen ditu aisialdia eta jarduerak. Etxean bisitak izaten ditu edo berak ere bisitatzen ditu haiek.
<input type="checkbox"/>	Kontaktuak ez dira oso ohikoak. Bisita gutxi izaten ditu eta berak ia ez ditu haiek bisitatzen ere.
<input type="checkbox"/>	Ez du lagunik arazo bat kontatzeko, denbora librea edo aisialdia partekatzeko.

Lagunik ez baduzu edo kontaktua ez bada oso ohikoa, zergatik uste duzu dela?

Lagunak egiteko asmoz, laguntza profesionala, elkarteena eta abar jaso nahiko zenuke?

BAI

EZ

5. EGOERA SOZIOLABORALA

Ikasketa maila:

Ikasketak osatu ezean, zergatik?:

Lanbide titulurik badu:

BAI

EZ

Zein?

Egindako ikastaroak:

Gaur egun lan egiten du:

BAI

EZ

LAN EGITEN BADU:

Enpresaren izena eta jarduera:

Lanpostua:

Lan egiten du:

Norberaren kontura

Besteren kontura

Senide batentzat

Beste batzuentzat (zehaztu)

Lan-kontratua du:			
BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>

Kontratu mota:	
<input type="checkbox"/>	Finkoa
<input type="checkbox"/>	Aldi baterakoa
<input type="checkbox"/>	Beste bat (zehaztu)

Hileko soldata garbia	<input type="text"/>
Badu beste diru-sarrerarik (laguntzak, pentsioak)?	<input type="text"/>
Hileko kopurua	<input type="text"/>
Nork administratzen ditu diru-sarrerak?:	<input type="text"/>

EZ DU LANIK EGITEN:

Diru-sarrera propioak dituzu:			
BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>

Hileko kopurua	<input type="text"/>
Nondik datoz:	<input type="text"/>
Nork administratzen ditu diru-sarrerak?:	<input type="text"/>

Inoiz egin duzu lan?	
<input type="checkbox"/>	BAI (zehaztu):
<input type="checkbox"/>	EZ

Prest egongo zinateke gaur egun lan egiteko?	
<input type="checkbox"/>	BAI
<input type="checkbox"/>	EZ
<input type="checkbox"/>	BAI, baina ezinezkoa da. Zergatik?

Prest bazaude, zer lan egin dezakezu?:
<input type="text"/>

6. AUTOESTIMUA

Zure ITXURA FISIKOA zaintzea gustatzen zaizu? (makillatu, ile-apaindegira joan, arropa erosi)	
<input type="checkbox"/>	Irudi ona izatea gustatzen zait orokorrean
<input type="checkbox"/>	Ez naiz kezkatzen eta ez zait gustatzen nire itxura fisikoa zaintzea

Zer gustatzen zaizu zure gorputzetik?:

Zer ez zaizu gustatzen zure gorputzetik?:

AUTOBALORAZIO PERTSONALA: Pertsona interesgarritzat jo beharko bazenu zeure burua, zer puntuazio emango zenioke 1etik 10era bitarteko eskalan?	<input type="text"/>
Arrazoitu zure erantzuna:	

AUTOBALORAZIO SOZIALA: Ezagutzen zaituztenek zer puntuazio emango lizukete?	<input type="text"/>
Zergatik?	

USTEAK ETA ASERTIBITATEA: Egoera edo krisi zailetan zaudenean (maila pertsonalean, familian, gizartean). Zer pentsatu ohi duzu?	
<input type="checkbox"/>	Oro har, uste dut zorte txarrari edo bidegabekeriari zor zaiola, baina era berean, gainditzeko gai naizela eta konponbideak bilatzen saiatzen naizela.
<input type="checkbox"/>	Normalean blokeatu egiten naiz eta pentsatzen dut ezin dudala gainditu, ez naizela gai nire arazoak konpontzeko. Gainera, errua nirea dela uste dut.

Eguneroko bizitzako egoeretan eta, batez ere, BESTEEKIKO HARREMANETAN:	
<input type="checkbox"/>	Nire buruaz seguru sentitzen naiz eta besteengan konfiantza dut. Zer egoeratan?
<input type="checkbox"/>	Beldurtuta eta mesfidati sentitzen naiz normalean. Zer egoeratan?

INDARGUNEAK: Zer egin duzu urte honetan harro sentitzeko?

Labur-labur, nola ikusten duzu zeure burua gaur egun? Pozik al zaude zure bizitzarekin? Eeta etorkizunari begira?:

7. OHITURAK, MOTIBAZIOAK, ZALETASUNAK ETA GIZARTEAN PARTE-HARTZEA

Komunikabideak (posta, telefonoa) erabil ditzakezu?

BAI

EZ. Zergatik?

Zure etxeko ohiko aisia-bitartekoetarako sarbidea duzu (telebista, irratia)?

BAI

EZ. Zergatik?

Etxetik kanpo eskura dituzu aisia-baliabiderik (zinema, antzerkia)?

BAI

EZ. Zergatik?

Ezagutzen duzu zure inguruan dagoen laguntza soziokomunitarioko sarea? Sare horretan sartu eta parte hartu duzu? (gizarte-, osasun- eta hezkuntza-baliabideak, kulturalak, aisialdikoak)

Ezagutzen du eta maiz erabiltzen du.

Ezagutzen du baina ez du erabiltzen.

Ez ditu bere inguruko baliabideak ezagutzen, ez daki zein diren sartzeko eta erabiltzeko baldintzak.

Elkarte edo gizarte-entitateren bat ezagutzen duzu? Horietan parte hartzen duzu?	
	Bai, inguru hurbilean dauden elkarte batzuk ezagutzen baditu, behar izan duenean jo du haietara, eta antolatutako jardueraz baliatu da (prestakuntza-lantegiak, aisialdiko jarduerak, etab.).
	Ezagutzen ditu, baina oso gutxitan jo du haiengana.
	Ez du elkarerik ezagutzen eta inoiz ez du parte hartu, beraz, elkarteek antolatutako jarduera bakar bati ere ez dio etekinik atera.

Zein dira zure gustuak, zaletasunak eta abar?:

Deskriba itzazu garrantzitsutzat jotzen dituzun hiru premia:

.....

.....

.....

ELKARRIZKETATZAILEAREN BALORAZIOAK, JASOTAKO ERANTZUNETATIK ABIATUTA

ADIERAZLEAK	BALORAZIOAK		OHARRAK
	BAI	EZ	
1. EZGAITASUNA			
Ezgaitasunak asko zailtzen dio autonomia izatea			
Bere ezgaitasuna oztopo bat da ikasteko / lan egiteko			
AZKEN BALORAZIOA			
2. TESTUINGURU PERTSONALA, FAMILIARRA, SOZIALA			
Egunerko erabakiak hartzen ditu.			
Erabaki garrantzitsuak hartzen ditu bizitzan.			
Senideekiko harremana afektiboa eta egonkorra da.			
Familia zabalarekiko harremana ohikoa eta estua da.			
Lagun, auzokide, lankideak, etabarrekin duen harremana ohikoa eta estua da.			
Familiako zenbait pertsona, lagun, auzokide, etabarrekin harremanak izateko beldurra du.			
AZKEN BALORAZIOA			
3. TESTUINGURU SOZIOLABORALA			
Ondo ordaindutako eta kontratupeko lana du			
Gaizki ordaindutako lana du eta enplegu klandestinoari lotua			
Ez du lanik egiten, baina diru-sarrerak ditu (pentsioa, RISGA, etab.)			
Bere diru-sarrerak administratzen ditu (lana, pensioa, etab.)			
AZKEN BALORAZIOA			

ADIERAZLEAK	BALORAZIOAK		OHARRAK
	BAI	EZ	
4. AUTOESTIMUA			
Autoestimu txikia du			
AZKEN BALORAZIOA			
5. OHITURAK, MOTIBAZIOAK ETA GIZARTEAN PARTE-HARTZEA			
Inguruko komunikabideetarako sarbidea du			
Ohiko aisialdirako sarbidea du			
Laguntza soziokomunitarioa ezagutzen du eta parte hartzen du			
Talde antolatuak ezagutzen ditu eta parte hartzen du (elkarteak, gizarte-erakundeak)			
AZKEN BALORAZIOA			

ELKARRIZKETAN ZEHAR BALIZKO INDARKERIA-ZANTZUEN INGURUKO OHARRAK

ADIERAZLEAK	BALORAZIOAK		OHARRAK
	BAI	EZ	
1. ITXURA FISIKOA ELKARRIZKETAN			
Desnutrizio-seinaleak ikus daitezke			
Arropa desegokia darama jantzita klima eta adina aintzat hartuz			
Itxura zikina eta zabarra du			
Sedazio-egoeran dago			
Indarkeria fisikoaren seinaleak daude			Markak eskumuturrean: <input type="checkbox"/> Markak orkatiletan: <input type="checkbox"/> Hezur-hausturak: <input type="checkbox"/> Hozkadak: <input type="checkbox"/> Erredurak: <input type="checkbox"/> Bestelakoak:
Gaitasun fisikoa gutxitua duela ikus daiteke			
Lorik egin ez duela ematen du			
AZKEN BALORAZIOA			
2. ELKARRIZKETAN ERAKUTSITAKO JARRERA			
Elkarrizketa-egoeran ohikoa baino urduriago dago			
Lagungarri dago			
Jarrera- eta umore-aldaketak nabarmentzen zaizkio			
Jarrera pasibo eta atsegina dauka			
AZKEN BALORAZIOA			

6. ERANSKINA

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitzarloan dituzten berezitasunak

1. ETXEBIDEREN ETXEBIZITZA-ESKATZAILEEN ERREGISTROAN ALOKAIRURAKO INSKRIBATZEA

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoak, erregistro horren inskripzioa eta etxebizitzen esleipena erregulatzen ditu (aurrerantzean, 2012ko urriaren 15eko Agindua).

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek kondizio hori egiaztatu behar dute, epai judizialaren, babes-aginduaren edo biktimatzat jotzeko eskaera egin baino bi urte lehenago idatzitako gizarte-txostenaren bidez, halaxe ezartzen baitu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Agindua, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoak (aurrerantzean, 2006ko Agindua).

Erregistroan inskribatzeko eskaera egiten dutenean, babes publikoko etxebizitzak edo parekoak eskuratzeko betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar dute eskaerarekin batera. Honako hauek dira babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko betekizunak: adin nagusikoa edo emantzipatua izatea, etxebizitza behar izatea (etxebizitza baten titularra ez izatea edo aurreko bi urteetan izan ez izana), EAEn erroldatuta egotea eta gehieneko eta gutxieneko diru-sarreraren mugak betetzea.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak gutxieneko diru-sarreraren betekizuna betetzetik salbuetsita daude zuzenean, babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzen eta lurzuaren arloko neurri finantzarioei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak ezarri bezala (aurrerantzean, 39/2008 Dekretua). Halaber, ekintza positiboko neurriak iraun bitartean eskatzen dituzten edo eska ditzaketen udalerrietako batean erroldatuta egotetik salbuetsita daude.

Babes ofizialeko etxebizitzak edo parekoak eskuratzeko bestelako edozein betekizunetik salbuestea eskatzen badute, erakunde publiko batek egiaztatu beharko du premia hori, eta etxebizitza-premiarekin lotuta egon beharko du, dekretu horren 16.3 artikulua ezartzen duen moduan. Normalean, etxebizitza-premiaren betekizunetik salbuestea eskatzen digute (etxebizitzaren edukitza).

Genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatu ondoren, espedientearen titularrak baldin badira eta erregistroan alta emanda badaude, lau puntu gehigarri esleitzen zaizkie, errentamenduan etxebizitzaren bat esleitu diezaieten parte hartzen duten baremazio-prozedura guztietarako.

2. BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK EDO PAREKOAK ALOKAIRUAN ESLEITZEA

Ohiko prozedura. Baremazioa eta lehentasunezko kupoak

Babes publikoko etxebizitzak edo parekoak baremazio-prozedura baten bidez esleitzen dira, eta, lehen adierazi dugun bezala, genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatu ondoren, espedientearen titularrak baldin badira eta erregistroan alta emanda badaude, lau puntu gehigarri esleitzen zaizkie, parte hartzen duten baremazio-prozedura guztietarako.

Honako hauek dira baremazio-irizpideak: *Etxebideren* Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko antzinatasuna, errolda, bizikidetza-unitateko kide-kopurua, diru-sarrerak eta premia bereziko kolektiboetako kidea izatea. Genero-indarkeriaren biktimak premia bereziko kolektibotzat jotzen dira; lehentasunezko kupoa da.

Prozedura berezia. Zuzeneko esleipena

Honako hauek dira etxebizitza bat esleitzeko betekizunak:

- ▶ Etxebideren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egotea.
- ▶ Emakumea bizi den udalerriko gizarte-gaietako zinegotzi arduradunak edo alkateak edo dagokion foru-aldundiak sinatu behar du eskaera. Harrera-pisu baten erabiltzailea dela, egonaldiaren gehieneko epea bete duela eta beste etxebizitzarik aurkitu ezin izan duela egiaztatu behar du.
- ▶ Gizarte-zerbitzuen **txosten tekniko** bat erantsi behar du; bertan, emakumearen egoera pertsonalari buruzko erreferentziak, adostutako esku-hartzea eta etxebizitza-egoera jaso behar dira.
- ▶ Ustezko erasotzailearekin bizikidetza amaitu duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar du (ezkontideak edo izatezko bikotea izan badira, dibortzio-epaia edo erregistroko baja). Salbuespenez, dibortzio-eskaera onartzen da. Gainerako interesdunek errolda-agiria aurkeztu behar dute.
- ▶ Interesdunak errentamendu-kontratu bat sinatzen badu, ustezko erasotzailearekin bizi gabe jarraitu behar du kontratua amaitzen den arte. Hala egin ezean, errentamendu-kontratua baliogabetu ahalko da.

Gasteiz, 2021eko azaroaren 15a

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako Saila
Etxebizitzako sailburuordea
Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza

